



Kezka, ikerketa, plana

Altsasu BHI'n kultur aniztasunaren azterketa egin ondoren neurriak hartzen hasi dira / 2-3



Iosune Urra Beraza, Karate Mundialetan lortutako brontzezko dominagatik Irañetan omendua / 24-25

Bigarren urtez jarraian D ereduak behera egin du ibarreko ikastetxeetan / 7

Azken bi hamarkadetan bi joera zehaztu dira: jaiotza gutxiago eta heriotza gehiago / 8-9

Irurtzunen bosgarren edukiontzia ezarri da legeak ezarritako organiko bilketa tasa lortu ahal izateko / 5

Josefina Arregi klinikako eguneko zentroa handitzeko diru bilketa kanpaina hasi dute / 10

Mendigoizaleen Eguna ospatuko da igandean Aralarren, bi mendi federazioek elkarrekin antolatuta / 25

Binakako Pilota Txapelketa Sakanan: Elordi-Zabaleta Urruti-Albisuren kontra, Irurtzunen / 27

Zama doinuz arindu kontzertu-ikuskizuna aurkeztu dute; ilbeltzaren 15ean izanen da / 30



EGUBERRIETAKO GEHIGARRIA

Ikusezinak azaleratzeko

Altsasu BHIIn diagnosi lana egin du NUPeko lan talde batek. Ikasleen artean dauden harremanak aztertu eta zailtasunak ba ote diren jakitea izan da diagnosiaren asmoa. Orain, hartu-emanak hobetze aldera, lanketa prozesuan ari dira

Maialen Huarte Arano SAKANA

Jatorriz magrebtarrak diren familia batzuegandik sortu da kezka: gure seme-alabak moldatzen ote dira bertan betidanik bizi direnekin? Harremanik ba ote dute euren artean? Sakanako Mankomunitateko Anitzartean kulturartekotasun zerbitzuak jaso ditu gisa horretako zalantzak eta nerabeen artean zer nolako harremanak dauden aztertze bide izan dira duda horiek guztiak. Horretarako, Nafarroako Unibertsitate Publikoko (NUP) Soziologia eta Gizarte Laneko Sai-leko irakasle eta ikertzaile Izaskun Andueza Imirizaldu eta Ruben Lasheras Ruiz aritu dira diagnosis egiten. Altsasu Bigarren Hezkuntzako Institutuko ikasle, irakasle eta gurasoekin egin dute ikerketa. Galdetegiak, elkarrekin hartu emanak aztertu eta hizketaldiak egon dira tartean.

"Ordu eta hogeit hamar minutuko elkarrizketan, emakume nerabeekin, bederatzitaz aldiz azaldu zen bere buruaz beste egiteko hitza", nabarmendu du kezka Anduezak. Oso gogorrak izan dira diagnosiaren bidez agertu diren emaitza eta bizipenak. Esaterako, emakume nerabe horien esanak testuinguru jakin batean agertu dira: euren egunerokoak hitz egiterako garaian, hiyaba erabiltzen ote duten galdetzerakoan. Izan ere, askotan eta ohiko izaten diren ohituretan "kontraesanak edo balio desberdinak

jasotzen dituzte; atzerrian jaiotako gurasoak dituzten nerabeek, hiyaba erabiltzearen aldeko mezuak jasotzen dituzte, baina, kaleanaldiz, kritikatuak sentitzen dira, edo behintzat behin eta berriz azalpenak eman beharra sentitzen dute". Elkarrizketetako une horietan erabili dute bere buruaz beste egiteko hitza: "beraie ez zaie gehiegi inporta hiyaba eraman edo ez, baina, susmoa dute, toki batzuetan onartuak direla zapia eramanda, eta beste batzuetan hobe ikusiak daudela eraman gabe. Horrek sortzen die nolabaiteko kontraesan iraunkorra," azaldu du Anduezak. Ez du batere erraza izan behar, are gutxiago nerabezaroan, halako erronkei aurre egin behar izatea: etxean ematen dizkieten balioak jarraitu eta buruko zapia eraman, edo kontrara, kalean jasotzen dutenaz baliatu eta ilea biluzirik eraman. Horra hor koska. Horra hor dilema.

"Prozesu konplexua izan da diagnosiarena", esan du Anduezak. Hari mutur asko izan ditu eta prozesuan berean ere sortu da fase desberdinetan aritzeko beharra. 2019an hasi zen guztia. Oraindik ere pandemiarik eza gutzen ez zen garaian. Eta gero, dena katramilatatu zen eta dena aldatu zen. Baina, egoera hark baldintzatu duen arren, ez da kalterako izan, diagnosiak emaitza askotarikoak utzi dituelako. "NUPera etorri zitzaizkigun Altsasu, Olatzagutia eta Ziordiko

Oinarrizko Gizarte Zerbitzuko Mankomunitatekoekin batera Anitzarteaneko kideak. Euren-gana iritsi zen kezka bati irtenbidea bilatzeko modua landu nahian etorri zitzaizkigun. Izan ere, zonalde hartako familia hainbat gerturatu zitzaizkien euren seme-alaben ezinegona azalduz. Familia magrebtarrak ziren eta euren gazteen artean gatazkak eta etxeko jarreretan zailtasunak sumatzen zituztela azaldu zieten: "Hortik tiraka sortu zen diagnosi bat egiteko aukera", azaldu du Anduezak. Euren jakin nahi zuten, susmo zutena ea hala ote zen edo ez: "etxean eta gizartean balio desberdinak transmititzen zitzaizkenez, nahasmendua sortzen al zien horrek?, galderari erantzuteko bidea egin nahi izan dugu aztertze-lan honekin", hori izan da abiapuntua.

Balio erantsia onerako eta txarrerako

Altsasuko institutuan izan da azterlan handiena. Izan ere, horixe da Sakanako nerabe askoren elkargunea. Bertako gurasoak dituzten nerabeak zein jatorriz kanpoko gurasoak dituztenena. Sakanara zabaldu zen modu horretan diagnosiaren esparrua, eta ikasle horien bizipenak aztertzen aritu dira urteotako lan-ketan. Horretarako, ezinbestekoa izan da, noski, institutuaren beraren inplikazioa: irakasleena, beste langileena, gurasoena,



Altsasu BHIko ikasleak diagnosis egiten. MAIALEN HUARTE ARANO

ikasleena, eta abar. Espazioak, eskola orduak, jolas orduak ... denak izan dira baliagarriak. Profil anitzenekin biltzeko aukera eskaini du institutuak. Hasteko, jatorri magrebtarra duten ikasleekin batu ziren. "Jaso genuena oso kezka garria izan zen. Espero ez genituen emaitzak. Hemen bizi diren nerabeak dira, hemen jaiotakoak. Baina, hala ere, ezin dugu imajinatu ere egin zer nolako bizipenak dituzten. Bi munduren artean bizi dira", esan du ikerlariak. Horrek, aberastasuna dakarren bezala, balio erantsia, zailtasunak ere bada-kartzala argi geratu da. Balioetan jartzen dute fokua: "etxean ongi ikusia dagoena kalean ez da horrela izaten", transmititu zieten gazte askok.

Presionatuta ikusten dute euren burua maiz, bai euren komunitatearengandik zein gizartearengandik ere. Harrapatuak eta noraezean izaten dira askotan. "Oso kontziente dira jasaten dituzten diskriminazioekin. Horiei

aurre egiterako garaian, adibidez, neska eta mutilen modu desberdinean egiten dute: emakumeek gehiago egiten dute gordetzerak, eurentzat barneratzerak eta mutilen kasuan kanpora ateratzekoak, gehiegitan gatazka eta borroka-ren bitartez", hala iruzkindu du. Bizipenak desberdinak dira generoaren aldetik; eta, hortaz, erantzunak ere ezin dira berberak izan.

A eta D ereduaren arteko distantzia

"Elkarren ondoan gaude, baina, ez dugu elkarren berri", baieztapen hori berretsi du diagnosiak ere. Arrakala izugarria da bi ereduaren artekoa. Ez du inor ustekabearen harrapatu horrek, baina azalarazi egin du: "Bi mundu dira topagune berean. A eta D ereduaren artean sekulakoa da haustura", azaldu du Iñaki Mundiñano Larrazak, institutuko zuzendariak. Eta zerk eragiten duen elkargunea ez izatea elkartzekeko gune bi ereduentzat? Bada,



EGOKI
Ventanas PVC Leihok

www.ventanasegoki.com

948 563 253 Arkinoturri Industrialdea • Olazti

**EROSOTASUNERAKO
PENTSATUAK**

Diseinu soileko lehiak berriak

Erakusketa: Olite kalea 16 • Iruñea





nabarmena da, adibidez, batzuen eta besteen arteko egoera sozioekonomiko desberdina. "Gurasoen ikasketa mailak esaterako, zeharo desberdinak dira: A eredu (jatorriz atzerritarrak diren guraso gehien biltzen dituen eredu) ikasleen gurasoen %62k, gehienez, oinarritzko ikasketak ditu, eta %72ak ezta hori ere. Aldiz, D ereduaren gurasoen ikasketa maila bestelakoa da: %31k unibertsitate mailako ikasketak ditu", azaldu du Anduezak. Horrek, noski, lan egoerari dagokionez ere sortzen du batzuen eta besteen arteko distantzia: "D eredu ikasleen gurasoen %80 lanean ari dira, A ereduaren kasuan %48", agerikoa da desberdintasuna. "A eredu ikasleen artean asko markatzen duen beste datu bat: %30 soldatarik gabe dago etxean".

Baliabideak, beraz, ezin berberak izan batzuen eta besteen etxeetan. Hala, ikasketekin laguntza jaso ahal izateko, D ereduaren artean %80k daukate aukera hori, baina erdiak baino gutxiagok A ereduaren, %47k. "Aukera gehiago dituzte D ereduaren ikasten ari direnek A ereduaren ikasten dutenekin alderatuta, baliabide gehiago dituztelako. Aisialdiari dagokionez ere aldea handia da: "A eredu ikasleek neurri askoz ere gutxia-

goan egiten dituzte eskolaz kanpoko ekintzak, musikarekin, dantzarekin nahiz artearekin erlazionatutakoak, adibidez; A ereduaren artean eskolaz kanpokoren bat egiten du %15ak eta D ereduaren artean %50ak. A ereduaren artean gehiago izaten da esaterako, bideojokoetan aritzeko denbora edota erlijio zentroetara joateko ohitura", adierazi du Mundiñanok.

"Ereduen arteko segregazioa erabatekoa da", azpimarratu du Anduezak. Euren artean errealitate desberdinak bizi dituztela nabarmena da eta hori "zuzentze" aldera baliabide gehiago beharoko lirarteke jarri institutuaren eskura. "Ikasle askorentzat gutxiengoa da matematikak edo filosofia ikastea, bestelako kezka eta ardurak dituztelako". Hori bai, kezka horiei institutua erantzuten ari zaie jada Anduezak azaldu duenez, eta, izugarri onuragarria izanen zaiela uste du: "Erronka oso handia eta zaila izan daiteke, ohiko ikasgeletatik eta ikas-materietatik aldentzen

"JASO GENUENA OSO KEZKAGARRIA IZAN ZEN. ESPERO EZ GENITUEN EMAITZAK. HEMEN BIZI DIRA"

dena guztiz. Hala ere, institutuak zailtasun horri heltzea erabaki du eta ikasleen arteko amildegia txikitzeko bideari ekin dio", nabarmendu du.

Pozik egiten dute instituturako bidea

"Gustura egoten dira ikasle gehienak institutuan", datu pozgarri hori ere argi utzi du diagnosiak. Ekainean emaitzak jendaurrean azaldu zituztenean, irri txikiak eta ezezko keinuak nagusitzen ziren ikasleen artean baieztapen hori entzundakoan, baina, errealitatea da baietz, gustura egoten direla euren ikasketa zentroan: "Ikasleen %82k esan du pozik joaten dela institutura, A eredu-

koen artean are gehiago, %92k, eta ikasle guztiek oso iritzi positiboa dute gainera institutuari dagokionez".

Diagnosi lan horrek 14 talderen emaitzak jaso ditu, 379 galdetegiren datuak eta irakasleen artean egindako AMIA (Aukera, Mehatxu, Indargune, Ahulezia) analisiarenak, tartean. Ikasleen artean galdetegiak eta eztabaida-taldeak zabaldu zituzten, gurasoen artean ere bai eta baita institutuko beste langileen artean ere. "Emaitza guztiekin ondorio zenbait planteatu dira eta horiei heltzeko garaian daude orain, ekintza planaren bitartez", azaldu du soziologoak.

Kultur aniztasuna, kulturartekotasun bilakatu

"Erronka handia utzi dute datuek", onartu dute Uxua Azpiroz Armendarizek, institutuko Filo-sofia irakasleak. Lanketa sakona egin nahi dute, eta horren bidez orain arte dauden hutsune zein distantziak murriztu. Bi bideren bitartez joko dute: alde batetik, eta agian mardulena dena, curriculumarena da. Mugimendu migratorioak aztertuko dituzte kulturartekotasunaren ikuspuntutik. "Hiru fasetan ari-tuko gara: formazioa izanen da lehenbizikoa, kontzientziazioa etorriko da gero eta, amaitzeko, ekintza bat prestatuko dugu egindako guztia borobiltzeko asmoz", azaldu du Azpirozek.

Proiektu horretan, beraz, ikasleak izanen dira euren jatorriaren inguruko informazioa jasoko dutenak: nondik gatzoz. Ikasle eta familien jatorriaren mapa osatuko dute: "Agerian geratzen ari dena da arbasoen jatorriaren emaitza oso aberatsa dela eta egiten diren lekualdatzeak ezau-garri naturala dela", nabarmen-

du du irakasleak. Ipuin ere bilakatuko dute ikasitako guztia: "Kamishibai formularekin A eta Dereduetako ikasleek elkarlanean sortuko dute ipuina. Hizkuntza zenbaitetan egiten dute eta erakusketa zabalitzen den egunean proiektatzea ere bada asmoa.

Kontzientziazio lana helduko da gero: 'break out' edo ihes joko baten bidez enpirikoki ezagutuko dute norberaren jatorrizko herri-ritik ihes egin behar izan duen pertsona baten errealitatea. Hemen ere, bi ereduak, A eta D, ariko dira lanketa prozesuan. Azkenik, irratsaio bat sortzeko tailerra ere egiten dute. Azken horrekin iritsiko dira proiektuaren azken fasera; irratsaioa sortuko dute. Hizkuntza batean baino gehiagotan zabalduko dute ikasitako guztia. Horretarako, inguruko komunikabideekin harremanetan jarri dira dagoeneko, egindako lan guztiak ahalik eta zabalkunde handiena izan dezan.

Metodologia aktiboak eta ebaluazio kompetentzialaren bidezko lanketa izaten ari da. Elkar ulertzea, bestearen azalean jartzea eta sentimenduetan murgiltzea bilatzen ari dira ekintza planaren bidez: "Jatorriaren ikerketan ari gara orain. Jarduerak egiten ari gara familiekin eta ezusteko handiekin egiten dute topo. Dituzten aurreiritziak guztiz desmuntatzen ari zaizkie eta horrek dakar eraldatzea guztiz aurretik zituzten iritzi eta jarrerak", azaldu du Azpirozek. Izan ere, ikasle asko konturatu dira, euren gurasoak herrian bertan jaiokoak badira ere, aitona-amonak edo birraitona-birramonak, kanpotik etorriak direla, agian ez oso urrunetik, baina bai kanpotik. Alegia, guztiok garelako hein batean edo besteak etorkin.


Erakusketa, erakusleihu

Igandean Migranteen eguna da. Horregatik, ikasleek egindako lana ezagutzeko *Sakanatik mundura eta mundutik Sakanara* erakusketa prestatu dute. Migrazioak aztertu dituzte, eta informazioaren eta irudien bitartez islatu dute migrazioaren eta pertsona migranteen errealitatea. Benetako esperientziak jaso dira eta ikasleek euren larruazalean

jarriko dira ihes joko baten bidez: ikasleak euren jaioterria utzi behar izan duten pertsonen azalean jarri dira. Irratsaio bati esker ere bailara osoari eman nahi diote egindako lanaren berri.

Beraien familia jatorriari buruz ikasleek egin duten mapan Afrika, Amerika, Asia eta Europako 25 herrialde ageri dira.





ASTEKOA

ANDREA CARRILLO JUANBELTZ

Eguberri on?

Abendua. Udazkenaren azkeneko hostoek paisaia biluziei uzten diete lekua. Orokorrean gutxien lan egiten dugun hilabetea, dirua gehien gastatzen dugun unea den bitartean. Urte osoan hemendik harantz edota mundutik bira eman ondoren, abenduan sutondora itzultzen gara. Abendua eta Gabonak. Gabonak eta etxea. Itxura ona du honek.

Halere, Gabonen sinonimo dugu ere alkohola, erosketak, janaria eta familia. Baita zoriontasuna eta bakea kontzeptuen derrigortasuna ere. Edonon jasotzen ditugun iragarkiak ikusi besterik ez dago, "eguberri on" mezuez blai. Zer gertatzen da alkoholarekin arazoa dutenekin, ordea? Are gehiago, errazten al dugu gure artean alkohola ez edateko aukera? Badirudi, beraiantzako lekuri ez dagoela festa hauetan. Bestalde, kontsumoaren egunak direlarik, diru nahiko edukitzea beharrezkoa da. Zer gertatzen da oparirik erosi ezin dituztenekin? Azken urteotan daramagun bidearekin pertsona askok, diru falta dela eta, egunero borrokatu behar dute jatekoak eta lo egiteko lekua

GUZTIOK DUGU EGUERRITAN EXISTITZEKO ESKUBIDEA

mantentzeko. Honen harira, hainbesterainoko bazkari edota afariren beharra dugu. Norbaitek pentsatu al du elikadura nahastea duten pertsonetan? Azkenik, familia; Gabonetako izarra. Nola uste duzue bizitzen dituztela egun hauek familian bertan zoriontasuna

ala bakea aurkitzen ez duten edo norbait galdu dutenek?

Hauek guztiek, Gabonak normaltasunez bizitzetik at geratzen dira. Aldiz, guztiok dugu Eguberri on existitzeko eskubidea. Bai zoriontasunez ez bada ere. Eguberri on! Ala ez hain on. Bakoitzak bere modura ospa ala ez dezala ospa!

GUTUNAK: Karaktereak, gehienez: 1.900 (hutsuneak barne). **GUAIXEK** eskubidea du gutuna laburtzeko. Gutunak ezin izango dira kapituluka bidali. Gutunak asteazkena 10:00ak baino lehen bidali beharko dira erredakziora. Gutunarekin batera bidali beharrekoak: egilearen izena eta abizena, NA zenbakia, herria eta harremanetarako telefonoa. Gutuna helarazteko bideak: Foru plaza, 23 - 1., 31800 Altsasu / gutunak@guaixe.es

ZUZENKETA

Abenduaren 2an, Guaixe Astekariaren 842. zenbakian, publikatutako '40 urte harmonia onean' Erkuengo Ama Abesbatzaren erreportajearen harira, Anabel Valencia eta Amaia Amilibia ere koroko zuzendariak izan zirela falta zen.

HARA ZER DIEN

Karmele eta Sara. Inoiz egin behar ez zuten bidaian hilak

SAKANAKO SARE ETA ETXERAT

Duela hemeretzi urte, abenduaren 3 batean, hil zen Sara Fernández Aranda de Dueron izandako zirkulazio-istripu batean, Iruñetik 280 kilometrora; hau da, Sarak Valdemoroko (Madril) espetxean preso zegoen lagun bat bisitatzeko egin behar zuen bidearen erdian. 2004ko abenduaren 6an, Karmele Solaguren istripu batean hil zen Alcalá Mecera bere semea bisitatzera zihoala. Legea errespetatu izan balitz, Karmelek eta Sarak ez zuketuen egun horretan leku horretan egin behar eta haiek eta beste 14 lagunek ez zuketuen bizia

galduko salbuespenezko espetxe-politika batek behartutako bidaietan. Errealitatean, Estatuak heriotza horietan duen erantzukizuna onartzea espero dugu oraindik. Ez hori bakarrik. Estatuak euskal presoek aplikatzen zaien salbuespen-politika behingoz desegitea ere espero dugu oraindik. Lehenik eta behin, presoak Euskal Herrira ekartzeko prozesua burutzea premiazkoa da, oraindik ere dozenaka senide eta lagun, astero, zapaltzera behartuta egin behar ez luketen errepideetara ateratzen dira. Une garrantzitsu batean gaude, urrats garrantzitsuak egiten ari dira, eta hortaz, urrunketa erabat indargabetu behar dugu.

Eta bigarrenik, amaiera eman behar zaio euskal presoak legearen arabera ezartzen ari den birgizarteratze-ibilbidean oztopoak jartzeko politikari. Ibilbide horrek konponbide-

prozesua erraztu eta bizkortzeko eta bizikidetzan laguntzeko asmoz diseinatuta egon beharko luke. Ez da inola ere onargarria Fiskaltza bezalako instantzia erabakigarrietatik "ingeniaritza juridikoa" erabiltzea interes orokorrak eskatzen duenaren aurka eginez. Inoiz baino beharrezkoagoa da Euskal Herriko emakume eta gizonak modu masiboan mobilizatzea presoan etxeratze bidean jartzen ari diren oztopoak kentzeko. Ezin dugu pentsatu arazoak bulego judizialean bakarrik konponduko direla. Ezinbestekoa da bulego horietara argi eta garbi iristea konponbidearen eta bizikidetzaren bidean aurrera egin nahi duen gizartearen oihartzuna. Horregatik, abenduko mobilizazioek eta urtarrilaren 7an Bilbon egingo den manifestazio handiak garrantzi berezia izango dute. Denon zain gaude. Lortuko dugu!

GUTUNA

Azaleko miña

MIKEL MAZKIARAN

1992ko abenduaren 6an gertatu zen, Konstituzio egunean. Zenbait kasualitate epikoak dira. Rosalind Williams Lecraft Valladolideko geltokian dago senarrarekin eta semearekin. Autoa hondatuta dago eta Madrildik Valladolidera trenez joatea erabaki dute. Polizia bat hurbildu da eta dokumentazioa eskatu dio. Rosalindek poliziari galdetu dio zergatik bera bakarrik identifikatu behar duen; poliziak, berriz, bera bezalako pertsonak gelditzeko agindu diotela erantzun dio.

Beraz, nolako da Rosalind Williams? Rosalind New Orleansen jaio zen. Erakusketa-komisarioa da, arte eta argazkigintzan aditua, eta 1968tik Madrilen bizi da.

Rosalindek salaketa bat jarri zion gobernuari poliziak bere azalaren koloreagatik identifikatu zuelako. Demanda ezetsi egin zen. Konstituzio Auzitegiak ere ez zion jaramonik egin. Baina 2009an Nazio Batuen Giza Eskubideen Batzordeak arrazoia eman zion: poliziak ezin du norbait beste modu batera tratatu bere azalaren koloreagatik. Irizpen hori oso garrantzitsua da, nazioarteko

instantzietara iritsi den kasu bakarra delako. Eta egunero gertatzen den zerbait da, profil etnikoaren araberrako identifikazio polizialak.

2018ko abenduan Rosalind Williams Gasteiza etorri zen bere esperientzia kontatzera, "Ausartak" izeneko topaketa batean. Gobernuaren barkamen publikoaren zain jarraitzen duela esan zigun. Urte hartako urriaren amaieran iritsi zen Ibrahimia Bald Irunera, eta hor sortu zen Amets Arzalluzek *Miñan* liburua. Hogeita hamar urte igaro dira 1992ko abenduaren 6 hartatik, eta azalaren koloreak min ematen jarraitzen du.

guaixe
SAKANAKO ASTEKARIA

www.guaixe.es

GK diseinu zerbitzua:

Ainara Santiago Langarika
info@gkomunikazioa.es
948 564 275 (3 luzapena)
619 821 436
Ainhoa Etxeberria Pikabea
gk@gkomunikazioa.es
618 640 056

Administrazioa:

Gema Lakuntza Lopez
admin@guaixe.es

Zuzentzailea:

Felix Altzelai Iriarte

Lege gordailua:

NA-633/1995

Tirada: 3.200

LAGUNTZAILEAK

Mank
s a k a n a

BAZKIDEAK



Gobierno de Navarra
Nafarroako Gobernua

Gazteen alokairura bideratutako bi etxe

Uharte Arakilgo kuartela hartu zuen eraikinean eginen litzateke. Proiektua idatzi eta hura zuzentzeko deialdia egin du. Lan horregatik 29.620,8 euro (BEZ barne) ordainduko ditu. Eskabideak hilaren 30era arte aurkez daitezke udaletxean

Alfredo Alvaro Igoa UHARTE ARAKIL
San Joan kalearen 7. zenbakian dago garai batean Lakuntzaenea etxea zena, eta ondoren Guardia Civilaren kuartel etxea hartu zuena. Eraikina udalarena da. Hura berritu egin nahi du han bi etxebizitza sozial berri sortzeko. Egitasmo horrekin Uharte Arakilgo Udalak hainbat helburu bete nahi ditu. Batetik, despopulazio arrisku handiari aurre egin, bertan ez baita lortzen gazteen biztanleria finkatzea. Bestetik, aukera berdintasuna bermatu, baliabide ekonomiko gutxi dituzten gazteek ez baitute alokairu merkeko etxebizitzarik. Udalak gazteei alokairu babestuko etxebizitzak arrazoizko prezioetan eskaini nahi dizkie. Gainera, eraikina birgaitzeko udalerriko ondare publikoaren balioa handitzea eta gure herrietako jarduera ekonomikoa eta soziala dinamizatzea ahalbidetzen du. Behin proiektua eginda udalaren asmoa litzateke lanak finantzatzeko laguntzak eskuratzea.

Denboraren poderioz hondatuta dagoen eraikina birgaituta eta alokairu sozialeko bi etxebizitza berriak eginda, udalaren asmoa da "herriko eta hurbileko gazteei alokairu eskuragarriko eta erregulatuko lehen etxebizitza lortzeko aukera ematea, bi



Gazteen alokairura bideratutako etxeak hartuko litzuzkeen eraikina. UDALA

eta lau urte bitarteko epean herrian bizitzeko aukerak baloratu eta beste aukera batzuk izan ditzaten, etxebizitza librea alokatzeko edo erosteko", esan du Txomin Uharte Baleztena alkateak.

Alkateak azaldu duenez, "lehenengo solairuan bi gela eta bigarren solairuan hiru gela izango dituen etxebizitza bat sortzea proposatzen da. Gela horietako bat teilatupeko solairuan egongo da (duplex etxebizitza). Uhartek zehaztu duenez, "herriaren gizarte beharren eta etorkizunean

etxebizitzaren erabiltzaile izan daitezkeen arabera, teilatupean hirugarren erabiltzaile bat egon daiteke".

Joan den urte hasieran herrian 781 ubertear bizi ziren, eta haie-tatik 399k 20 eta 59 urte artean zituen. Azken 19 urtetan %1,39 egin du behera populazioak. Udalak jakinarazi duenez, hamahiru etxebizitza transakzio egin ziren 2021ean. Udalaren aholkulari teknikoan iritzi "oso gutxi da, independizatzeko adinean dauden pertsonen kopuruarekin alderatuta".

Auzokonposterako espazio faltak ekarri du 5. edukiontzia

Auzokonpostagailu gehiago jartzeko toki bila egon dira, baina opatu ez dutenez, edukiontzi marroia iritsi da

Alfredo Alvaro Igoa IRURTZUN
Legediak dioenez, 2020 urterako herritarrek sortutako materia organikoaren %50 bereizita jaso eta tratatu behar zen. Irurtzun ez zen horretara iritsi. Herrian materia organikoa kudeatzeko norberak etxean konposta egitea edo auzokonposta egitea lehentzi zen. Horretarako zortzi auzokonpostagailu jarri ziren Irurtzunen. Sakanako Mankomunitateko hondakin teknikari Olatz Garde Mazkiaranek azaldu duenez, "oso ongi funtzionatzen du. Bakoitzak bere arduradunak ditu. Eredugarria da. Gainera, onuragarria da: herrian materia organikoa kudeatzean bertan erabiltzeko aukera dago eta garrario kostuak kentzen dira".

Baina legea bete eta materia organikoaren erdia egoki kudeatzeko zortzi auzokonpostagailu beharrean gutxienez hamalau beharko zirela kalkulatu zuten Hondakin Zerbitzuan. "Arazoa izan dugu auzokonpostagailuak jartzeko tokiekin. Saiatu gara auzokonpostagailuak jartzeko egokiak diren lur eremu publikoak identifikatzen eta, nahi bai, baina ez dugu lortu", azaldu du Gardek. Gaineratu duenez, "2027rako sortutako organikoaren %70 gutxienez banatuta bildu behar dela dio legeak. Hau da, are auzokonpostagailu gehiago beharko lirateke Irurtzunen".

Gardek argitu duenez, "Sakana osotasunean hartuta legediak zehazten duena betetzen du. Baina ez dugu batz bestekoarekin

gelditu nahi. Hobetzeko potentzial handiagoa duten herriei bultzada eman nahi diegu. Irurtzunek hondakinen legedia betetzeko, gutxienez %10ean handitu beharko luke gaikako bilketa tasa, gaur egun %40 jasotzen baita bereizitza". Datu gehiago eman ditu: "Sakanen organikoa bereizten ez zenean jasotako errefusa guztia %46 zen. Irurtzunen gaur egun jasotzen den errefusaren %38 da materia organikoa". Beraz, edukiontzi berdera materia organikoa botatzen dutenak marroira botako balute, legeak ezarritakoa betetzeko pauso handia emanen luke Irurtzunek.

Beraz, hondakinei buruzko legedia betetzen dela ziurtatzeko 5. edukiontziaren alde egin dute. Haien gainontzeko edukiontziak dauden tokietan jarri dira, baina giltzapetuta daude. Irurtzundarrean etxean Hondakin Zerbitzuak bidalitako informazio material espezifikoa eta hondakinen gida jaso dute. Aurrez aurreko informazioa emateko eta zalantzak argitzeko azokan eta Barazkigunean ere izan ziren zerbitzuko hezitzaileak. Bosgarren edukiontzia erabiltzeko izena eman zutenek ere materiala jaso zuten: 10 litroko ontziak, poltsa konpostagarriak eta edukiontzi marroirako giltzak. Mank-ek 19.507,45 euro inbertitu du horretan guztian, eta, horretarako, Nafarroako Hondakinen Funtsaren 10.915,09 dirulaguntza izan du. eta gainontzekoa bestelako laguntzekin ordaindu du.

bertako
igogailuak | ascensores

-REKIN BAI!

OROTARIKO ZERBITZUA

100€-tik/hileko

- Baietz mantentze-lan profesionalari
- Baietz benetako 24/7/365 zerbitzuari
- Baietz ourrezteari mantentze fakturan
- Baietz bertako hornitzaileei



GIPUZKOA
943 903 450

BIZKAIA
946 523 935

ARABA
945 712 822

NAFARROA
848 870 917

www.bertako.eus

Olatzagutia belenzaleen topaleku bihurtuko da

Asturias, Burgos eta Hego Euskal Herriko 180 belenzale etorriko dira larunbatean, guztiak ere hainbat elkarteetako kideak. Sakanako belenzaleen egoitzan, aldameneko lokalean eta elizan dauden jaiotzak ikusiko eta jakintzak trukatu dituzte

OLATZAGUTIA

Sakanako belenzaleen elkarteak aurten 22 urte bete ditu. COVID-19 gaitzak eragindako pandemiak ez zion elkarteari 20. urteurrena behar bezala ospatzen utzi. Horregatik, bi hamarkadako ibilbidea konpainia ederrean ospatuko dute larunbatean. Izan ere, Oviedo, Gijon, Miranda de Ebro, Bilbo, Donostia, Gasteiz, Iruñea, Atarrabia, Arre eta Tuterako 180 belenzalek bat egingen baitute. Estatuko iparraldeko elkarteak topaketa izanen da larunbatekoa. Sakanako elkarteak kide Felipe Orabengoak azaldu duenez, "Iruñean hasi ziren topaketak egiten. Ondoren lekukoa Donostia eta Bilbok hartu zuten. Gero eta elkarte gehiago batzen joan ziren, hirietakoez aparte herrietakoak ere". Orabengoak gaineratu duenez, "gu duela 16 edo 17 urte joaten gara urteroko topaketa horretara".

Sakanako anfitrioiak 10:30 eta 11:00ak bitartean egingen diete harrera Kamiogaina jubilatutako elkarteetan. Guztiak elkarte ondoan elkarte bertan auzatea izanen dute. Ondoren, Sakanako belenzaleen elkarteak ikusgai jarri dituen jaiotzak aztertzeraz joanen dira. Egiteko horren ondoren eta topaketa despeditzeko jate txetxer batean bazkalduko dute.



Erakusketan ikus daitekeen jaiotzetako bat. MIREN ARREGI OLIVENZA

Erakusketa

Ibarreko belenzaleen elkarteak urtero bere egoitzan jaiotza erakusketa prestatzen du. Urteurren ospakizuna dela eta 22 urteko ibilbidean egindako hemeretzi jaiotza daude ikusgai erakusketan. Haien bidez elkartekideen trebeziak izan duen bilakaera ikusteko aukera dago. Erakusketa domekan zabaldu zen eta ilbeltzaren 8ra arte ikusgai izanen da. Hura ikusteko ordutegia honakoa da: astelehenean larunbatera 17:00etatik 20:00etara eta domeka eta jai egunetan

13:30etik 14:30era eta 17:30etik 20:00etara.

Orabengoak jakinarazi duenez, "pixkanaka jendea hasi da erakusketara hurbiltzen". Sakanadarren jaiotzak egiteko trebezia Olatzagutiaz aparte, Donostian ikus daiteke. Izan ere, hango erakusketa baterako arketa bat, jaiotza txiki bat, utzi baitu elkarteak. Orabengoak azaldu duenez, Sakanako belenzaleen elkarteak gaur egun 35 eta 40 kide artean ditu. Bakarren batek bazkide egin nahi badu erakusketatik pasa daiteke.



Erosketa gurdiaekin etxerantz. ARTXIBOA

Dendari elkarteek Gabonetan bertan erosteko deia egin dute

Ibarrean erosketak egiten dituzten herritarrek eskaintza eta opariak eskuratzeko aukera izanen dute

SAKANA

Sakanako Dendari, Ostalari eta Zerbitzuen Elkarte (SDOZE) eta Altsasuko Dendarien Elkarte (ADE) eguberriek begira jarri dira *Tokiko merkataritzak opari batek bikoitza balio du* kanpainarekin. Haren bidez merkatariak ibarrean merkataritzak, zerbitzuak eta establezimenduak izatearen balioaz kontzientziatu nahi dituzte sakandarrak. Izan ere, "negozio horiek kaleak dinamizatzeaz aparte, herriek aktibo, bizi eta seguru jarrai dezaten, funtsezkoak dira merkataritzak jarri duen sortzeko eta, ondorioz, lanpostuak sortzeko". Bi elkarteetako ordezkariak gogorarazi dutenez, "negozio gehienetan, gainera, langileak bertakoak dira, eta, beraz, dirua tokiko ekonomian isurtzen da".

Elkarteetako establezimenduetan egunotan erosketak egiten dituztenek oparia jasoko dute.

Izan ere, merkatariak 3.000 poltsa eta 15.000 pegatina oparituko dituzte, tokiko erosketaren balio erantsiaz sentsibilizatzea helburu duen esloganarekin.

Bestalde, ADEk bere sare sozialaren bidez *Herrian erosi, denok irabazi* leloa duen kanpaina zabaldu du udazkenean. Haren bidez, besteak beste, azaldu dute Altsasun erosketak egiteak herrian aberastasuna eta enplegua sortzen duela azaldu dute, edo herria topaleku bihurtzen dela. Orain arduraz kontsumitzearen garrantzia kontzientziatzea helburu duen kontzientziatze kanpainarekin segituko dute.

Beste zazpi elkarterekin batera, SDOZE Denok Bat federazioan dago eta hark fideltasun txartela egin zuen: Giltzaria. Hura hilaren 24ra bitartean erabiltzen dutenak 50 euroko 10 opari-txartelen zozketan sartuko dira; ilbeltzak 15era arte erabilgarri direnak.

Aralar babestea eskatzeko atxikimendu kanpaina

Gasbideak Aralar mendia ez zeharkatzeko kartelarekin argazkiak egitera gonbidatu dituzte herritarrek

ARAKIL

Aralar Zaindu Dezagun! Gasbidea hemendik ez! plataformak Etxeberri eta Lekunberriko industrialdearen artean egin nahi duen gasbidearen Aralar barnako trazatuaren kontra dago. Alter-

natiba gisa Plazaola ibilbidea proposatu dute. Plataformatik jakinarazi dutenez, haien eskaerak hainbat toki erakunderen babesa jaso du. Orain herritarren atxikimendua lortu nahi dute. Horretarako, *Aralar Zaindu De-*

zagun! kartelarekin (*labureus/Mq7Zn* loturan eskuragarri) argazkia egitea eta irudia *aralarzaindudezagun@gmail.com* e-postara bidaltzea eskatu dute. Jasotakoekin bideoa egingen dute. Ekimen horrekin "Aralar mendilerroa eta bere ingurua babestean aldeko atxikimenduak batzen jarraitu nahi dugu, gasbidearen proiektuak ekarriko lituzkeen ondorioak salatu eta arazo honen konponbidea eskatu, gure ustez beste aukera batzuk aztertu beharko lirakeelako".



Gasbidearen trazadura ezagutzeko mendi martxa egin zuten igandean. UTZITAKOIA

Bigarren urtez segidan D ereduak behera egin du

Euskara hutsezko hezkuntza ereduak 0,9 puntu galdu ditu aurreko ikasturtearekin alderatuta; ikasleen %80,7 dira D ereduaren ikasten dutenak. Gora egin duen eredu bakarra A eredu da, euskara ikasgai duena, 1,2 puntu; ikasleen %16 ari da

SAKANA

Gaztelania hegemonikoa den testuinguruan, euskararen eza-gutza unibertsala lortzeko ezinbesteko tresna da hezkuntza arautua. Zehazki ikasleak euskararen murgiltzen dituen D ereduak da ibarrean ofizialak diren bi hizkuntzak ikasteko modurik onena. Hezkuntzako eta sozio-linguistikako adituek berresten dute. Eta iritzi horrekin bat egin du Sakanako Mankomunitateko Euskara Zerbitzuak, euskara hutsezko ereduaren aldeko informazioa gurasoen artean zabaltzen duenak urtero-urtero, haiek D ereduari buruz izan ditzaketen zalantzak uxatzeko. Gainontzeko sakandarrei eredu horren berri inguruan zabaltzeko gonbidapena ere egin du.

Ibarreko erakundeak aurten ere Sakanako ikastetxeetako matrikulazio datuak jaso ditu. Guztira 2.745 ikasle daude Haur Hezkuntzan (HH), Lehen Hezkuntzan (LH) eta Derrigorrezko



Gurasoak eta haurrak Etxarri Aranazko plazako jolas parkean. ARTXIBOA

Bigarren Hezkuntzan (DBH), aurreko ikasturtean baino 109 ikasle gutxiago. Euskara Zerbitzuak jasotako datuen arabera, Sakanako ikastetxeetan gora egin duen eredu bakarra A eredu da, gaztelaniazko klaseak

eta euskara ikasgai duena. Hirugarren urtea da gora egin duena A ereduak. 1,2 puntu zehazki azken ikasturtean eta 2,8 azken hiru urteetan. Gaur egun ikasleen %16 dira eredu horretan ikasten dutenak (439, 17 gehiago). A ere-

dua Irurtzunen eta Altsasun eskaintzen da.

Murgiltze ereduak, D ereduak, bigarren urte jarraian 0,9 puntuko jaitsiera izan du. Ikasleen %80,7 ari dira gaur egun euskaraz ikasten. Datu hori 2014-2015 urtekoaren parekoa da (%80,9 zen orduan). Haren aurreko ikasturtean gaintitu zuen D ereduak %80ko langa. Goia 2018-2019 eta 2020-2021 ikasturteetan jo zuen %82,5ekin. Baina ordutik behera egin du. Euskarazko ereduaren 2.214 ikasle daude guztira, joan den ikasturtea baino 115 gutxiago. Azkenik, B ereduak, gaztelania eta euskara irakasteko baliatzen duena, 0,3 egin du behera. B ereduaren ikasleen %3,3 ikasten ari dira, 92 ikasle aurreko ikasturtean baino 11 gutxiago. Azken hiru ikasturteetan 0,8 puntu galdu ditu B ereduak. Hura Altsasun ikas daiteke.

Zikloka

HHn ibarreko ikasleen %19,78 ikasten ari da, guztira 543 ikasle dira, aurreko ikasturtean baino 39 gutxiago. D ereduaren ikasleen %86,56 dago (470, 31 gutxiago). Aurreko ikasturtearekin parekatuta 0,46 puntu egin du gora. A ereduari dagokionez, ikasleen %9,02 dago hartan matrikulatuta; 49 ikasle dira, 9 gutxiago. Bigarren ikasturtea da ikasleak galtzen dituenak, 10 guztira azken bi kurtsoetan. Azkenik, bigarren urte jarraian B ereduak %4,42ra arte gora egin du, 0,52 puntu

gehiago. Eredu horretan 24 ikasle ikasten dute, aurrekoan baino bat gehiago.

LH ikasten ari dira ibarreko ikasleen %47,5. Hau da, 1.304 ikasle, aurreko ikasturtean baino 0,74 puntu eta 73 ikasle gutxiago. Euskarazko murgiltze ereduaren ikasleen %79,75 ikasten ari da (1.040 ikasle, 2,05 puntu eta 86 ikasle gutxiago). A ereduaren ikasleen %15,03 dago (196 ikasle, 2,63 puntu eta 25 ikasle gehiago). Azkenik, B ereduaren aurreko bi ikasturteetako beherako joerari eutsi dio oraingoan ere. B ereduak 68 ikasle ditu Sakanan (68 ikasle, 0,59 puntu eta 12 ikasle gutxiago).

DBHn ikasleen %32,71 ari da ikasten, 898 zehazki. Aurreko ikasturtean baino 1,35 puntu gehiago eta 3 ikasle gehiago dira. D ereduak joan den ikasturteko ikasle kopuruari eusten dio: %78,4 (704, 2 gehiago). DBHn ez dago B eredurik eta behe mailetan eredu horretan ikasi duten ikasleek DBHra iristerakoan gurasoek, normalean, A ereduaren matrikulatzen dituzte, euskararen kaltetan. Hala izan da ikasturte honetan ere. Izan ere, A ereduak ikasleen %21,6 izateari eusten dio (194, 1 gehiago).

SAKANAN GUZTIRA 2.745 IKASLE DAUDE, AURREKO IKASTURTEAN BAINO 109 IKASLE GUTXIAGO

Hitzen, ekintzen eta errimen eztanda. Herri bat BERRIaren kulturaren plazan.



Izan BERRIALagun **6 hilabetez 50 euroan** eta eraman BERRIaren agenda opari

Asteko ikuspegia



Bietako bat aukeran



Eguneko ikuspegia

* Abenduaren 20 arte
(0034) 943-30 43 45

Berria.eus/berrialaguna

berria zuk badakizulako

Gutxiago jaio, gehiago hil

Sakanak 2021ean 2001ean baino 11 haur gutxiago jaio ziren. Epe berean heriotzak, berriz, 51 gehiago izan ziren 2021ean. Jaiotzek eta heriotzek duten joeren erakusle dira bi datuak: jaiotza kopuruak behera egiten ari dira eta eta heriotzarenak gora

Alfredo Alvaro Igoa SAKANA

Bi hamarkada horietako joerak horiek badira ere tartean ere gorabeherak izan dira. Jaiotzei dagokionez, 2001 eta 2012 bitartean goranzko joera izan zuen; 2002 eta 2004 urteak salbu. Sakanan jaiotze kopuru handiena 2009an (238) izan zen. Kontrara, jaiotza gutxien izan diren urteak COVID-19 gaitzak eragindako pandemiaren eraginpean pasatakoak dira: 2020 (120) eta 2021 (156).

Mende hasieratik 2008an finantza arloak eragindako mundu mailako krisia hasi arte Sakanako populazioak eta jaiotzek gora egin zuten. Krisia lehertu ondoren, 2009 eta 2012 artean, jaiotze tasa nolabait mantendu egin zen. Baina ondoren behera egin zuen, eta 2013tik aurrera ibarrean sakandar gehiago hiltzen dira jaiotze baino. Salbuespena 2014 urtea da. Orduetik, azken zazpi urteetan sakandar gehiago hil dira jaiotze baino. 20 urteko aldi horretan heriotza gehien izan diren urteak 2017 (224) da, eta gutxienean, berriz, 2001 (147). Pandemiaren eraginpean pasatako bi urteetan heriotzak ez ziren igo.

Datuak

Bi hamarkadetakoa batz bestekoa eginez gero, ibarrean urteko populazioaren %0,93 jaio berriak dira; hiltzen direnak, berriz, %0,91. 2001ean biztanleriaren %0,86(167) zen jaiotzeak, 2021ean, berriz, %0,77 (156). 20 urte horietan Sakanako populazioa 881 pertsona hazi da, baina jaiotza tasak behera egin du. Epe berean hildako sakandarren kopuruan populazioaren %0,76 (147) izatek %0,98 (198) izatera pasa da.

Jaiotzen, heriotzen eta biztanleriaren arteko gurutzaketa horretan gorabeherak izan dira ere. Izan dira urteak jaiotzak

ibarreko biztanleriaren %1 baino gehiago izan direnak, esaterako: 2009 (%1,15; 238), 2012 (%1,12; 233) eta 2011 (%1,08; 224). Jaiotza gutxien izan ziren lau urteak dira ere populazioarekin alderatuta ehuneko txikiena dutenak: 2020 (%0,59; 120), 2021 (%0,77; 156), 2002 (%0,79; 155) eta 2004 (%0,8; 159).

Aztertutako bi hamarkadetan hildakoen kopurua hirutan izan da ibarreko populazioaren %1 baino gehiago: 2017an (%1,11; 224), 2016 (%1,07; 216) eta 2012 (%1,02; 211). Azken urte horretan jaiotza eta heriotza kopuruak Sakanako populazioaren %1 baino gehiago izan ziren. Bestalde, 2012tik aurrera heriotzen kopurua urtero %0,9tik gorakoa da.

Bestetik, urtero jaio zirenen eta hil zirenen portzentajeen arteko aldeei erreparatu gero, alderik handiena jaiotzetan 2009an (0,39 puntu eta 81 jaiotza gehiago) izan zen. Alderik handienak heriotzetan, berriz, 2020an (0,37 puntu eta 74 heriotza gehiago) izan zen.

Herrika

Arakilen epe horretan jaiotzen joera gorakoa izan zen. 2007 eta 2012 artean, Arakilen jaiotza gehiago izan ziren heriotzak baino, 2011n salbu. Orduetik jaiotza kopuruak behera egin du, 2017an eta 2018an salbu. Pandemiaren hasierako urtean, 2020an, nabarmen egin zuten behera jaiotzek, baina joan den urtean 2019ko kopurua berdindu zuten.

JAIOTZE KOPURU HANDIENAK 2009AN (238), 2012AN (233) ETA 2011N (224) IZAN ZIREN


Heriotzei dagokionez, 2013tik aurrera urtero heriotza gehiago daude jaiotzak baino. Salbuespena 2017 urtea da, zazpina jaio eta hildakorekin. Pandemia lehertu zen urtean heriotza kopuruak behera egin zuten, baina hurrengo urtean 2019ren pare gelditu zen kasik. Arakilen tarre horretan jaiotza gehien izan den urtea 2012 izan zen, 12. Eta heriotza gehieneko urtea, berriz, 2004, 16. Arakilgo populazioak mende hasieratik 2010era gora egin zuen. Orduetik gorabeherak izan dira, eta 2021ean lortu zuen 2010eko marka gainditzea.

Irurtzungo biztanleriak hirutan egin du gora eta bitan behera mende hasi denetik. Gorako joerari eusten dio 2018tik. Jaiotzei dagokionez, 2013ra arte gorako joerari eutsi zion, finantza arloak eragindako krisiaren eraginak iritsi arte. Jaiotze askoko urteak izan ziren 2009 eta 2013 artekoak. 2016 eta 2019 artean kopurua baxuagoa izan zen arren egonkortuta zegoen, baina pandemiarekin behera egin zuen. Irurtzuen 2020an izan ezik, urtero jaiotako gehiago izan dira hildakoak baino. 2021ean 17na jaiotako eta hildako izan ziren. Heriotzen kopuruak gorako joera du; azken bost urtetan mende hasieran baino irurtzundar gehiago hiltzen dira. Irurtzundar gehien jaiotako urtea 2011 izan zen, 35. Hildako gehieneko urtea, berriz, 2017 izan zen 24.

Irañetaren biztanleriaren joera, gorabeherekin, baina goranzkoa da. Aldi horretan 16 urtetan herria jaiotzaren bat izan da eta gainontzeko bostetan bat bera ere ez. Jaiotza gehienak 2009 eta 2016 artean izan ziren. Bestela zortzi urtetan ume bakarra jaio zen eta beste hirutan bina. 2001 eta 2021 artean Herio

Biztanleriaren eboluzioa Sakanan 2001-2021

Biztanleria, jaiotzak eta heriotzak



Irañetan sega hiru urtetan pasa gabe gelditu da, gainontzekoetan hildakoren bat izan baita. 12 urtetan bina hildako izan ziren, eta beste lautan bana. Pandemiak ez zuen heriotzetan eraginik izan Irañetan. Jaiotzetan bai, ez baitzen izan. Azken lau urteetako salbuespena da. Irañetan ume gehien jaio zen urtea 2010 izan zen, zazpi. Heriotza gehieneko urtea, berriz, 2019 izan zen, sei. 2012an hamarna jaiotza eta heriotza izan ziren, eta gainontzeko 10 urteetan heriotza gehiago.


Uharte Arakilen populazioak 2010era arte gora egin zuen eta orduetik beherako joera da nagusi. 2016ra arte jaiotzek gorako joera izan zuten Uharte Arakilen. Orduetik behera egin dute. Pandemia hastearekin, 2020an, jaiotzak jaitsi egin ziren, 2021ean pixka bat igotzeko. Aztertutako epean hamar urtetan jaiotzak heriotzak baino gehiago izan dira. Azkena 2016an. Gainontzeko hamar urtetan heriotza gehiago izan ziren; azken bost urtetan hala izan zen. Izan ere, heriotza kopuruak gorako joera du Uharte Arakilen 2015etik. Bi hamarkada horietan jaiotza gehien izan ziren bi urteak 2013 eta 2014 izan ziren, 13. Heriotza gehieneko urtea, berriz, 2019, 14.

Arruazuk 2021ean 100 biztanle zituen, baina 2009an 119 eta

2013an 120 izan zituen. Bi urte horien artean 110 biztanletik gora mantendu zen herriko populazioa. Lau urte horien aurretik populazioak gorako joera zuen, eta, ondoren, beherakoa. Jaiotzei erreparatu bi hamarkada horietan soilik hamaika urtetan jaiotzak izan ziren Arruazun. Jaiotza gehienak 2008 bitarteko aldi horietan dira. Heriotzak, berriz, hogeitazetik 16tan izan ziren. Eta ez jaiotzarik ez hildakorik gabeko bi urte izan dituzte: 2016 eta 2017. Bi hamarkadetan Arruazun ume gehien jaio zen urte 2021 izan zen, 4. Hildako gehien izandako urteak 2007 eta 2013 dira, bosna.

Lakuntzak bi hamarkadetan populazioan gora egin du. 2013an goia jo ondoren, biztanleak galdu, baina 2019rako berreskuratu zituen. Orduetik populazioak pixka bat behera egin du. Jaiotzei dagokionez, gorako joera izan zuen 2012ra arte. Hurrengo urtean jaitsi eta 2018ra arte egonkor mantendu zen; orduetik jaiotze tasak beherako joera hartu du. 16 urtetan hildakoak baino jaiotza gehiago izan dira. 2015ean dozena bat jaiotako eta hildako izan ziren. Gainontzeko lau urteetan hildakoak jaiotzakoak baino gehiago izan ziren. Horietako bi 2019 eta 2021ean izan ziren. Pandemia hasi zen urtean, 2020an,

2021



Lakuntzan haur gehiago jaio eta hildako gutxiago izan ziren. Jaiotza gehien izan zen urtea 2012 izan zen, 24. Eta heriotza gehieneko urtea, berriz, 2016, 10.

Arbizun biztanleriak gora egin du. 15 urtetan jaiotza gehiago izan dira heriotzak baino eta behin, 2002an, jaiotako eta hildako kopuru bera izan da, 12. Jaiotzen joerari erreparatuta, 2011 arte gora egin zuen. Bi urtez jaitzi ondoren, atzera ere, gorako joera izan zuen. 2018 eta 2020 artean behera egin ondoren, 2021ean igoera izan zuen jaiotzetan. 20 urteetan Arbizun soilik lautan egon dira heriotza gehiago jaiotzak baino: 2009, 2014, 2016 eta 2020an. Pandemia hasi zen urtean, hildako kopuru asko handitu zen 2019arekin alderatuz. Herritar gehien jaio zen urtea 2005 izan zen, 20. Eta hildako gehien, 18, 2016an izan ziren.

Ergoienak azken 20 urteetako biztanleriak beherako joera du. Epe horretan bitan ezik, 2006 eta 2018, gainontzeko urteetan jaiotzen bat izan zen. Bestetik, lau urtetan bina jaiotza izan ziren eta beste bederatzietan bana. Jaiotako eta hildako kopuru bera izan zen 2008an: launa. Urte hori eta 2006a (5 jaiotza) salbuespenak dira, gainontzeko guztietan Ergoienan heriotzak jaiotzak baino gehiago baitira.

Hori bai, pandemiaren bi urteetan heriotza kopuruak behera egin zuen. Jaiotza gehieneko urtea 2006koa izan zen, 5; heriotza gehienekoa, berriz, 2017, 10.

Etxarri Aranatzen populazioaren joera goranzkoa izan da. Tarte horretako 14 urtetan jaiotza gehiago izan dira. 2016ra arte jaiotako gehiago izan ziren hildakoak baino, salbuespenak 2004 eta 2014 izan ziren. Baina 2017tik urtero heriotza gehiago izan ziren. Salbuespenak bi izan ziren: 2018an izan zen, jaiotza gehiagorekin, eta pandemia hasi zen urte, 2020, hemezortzina jaiotza eta heriotzekin. Pandemiaren bi urteetan hildako kopuruak gorako joera hartu zuen. Jaiotza gehien izan den urtea 2005a da, 35. Heriotza gehien izan den urtea, berriz, 2018 eta 2021, 27na.

Bakaikuk jaiotzen goranzko joera izan zuen 2005 eta 2007 artean. Baina ordutik behera egin eta 2013tik urteko bi jaiotzako kopuruan egonkortu dela dirudi. Epe horretan urtero izan dira jaiotzak, salbu eta 2020an, pan-

**HERIOTZA GEHIEN
IZAN DIREN URTEAK
DIRA 2017 (224),
2016 (216) ETA 2012
(211)**

demia hasi zen urtean. Bi urtetan bakarrik izan dira jaiotza gehiagoko heriotzak baino: 2007an eta 2012an. Bi urtetan jaiotako eta hildako kopuru bera izan zen (2001 eta 2010) eta gainontzeko urteetan hildakoak gehiago izan dira. Azken 20 urtetan jaiotako gehien izan ziren urteak 2007 eta 2012 izan ziren, zazpina jaiotza. Hildako gehien izandako urtea, berriz, 2006an izan zen, zazpi. 20 urte horietan Bakaikuko populazioak beherako joera izan zuen 2013ra arte. 2019ra arte gora egin zuen, behera egiteko berrit.

Iturmendik mendeko lehen eta bigarren hamarkaden bukaran egin zuen gora populazioan. Jaiotzei dagokienez, 2001 eta 2004 artean eta 2009 eta 2015 artean izan ziren gehienak. Aztertutako epean zazpi urtetan jaiotzak heriotzak baino gehiago izan dira Iturmendin. Azkena, pandemia hasi zen urtean, 2020an. 2012an ez zen jaiotzarik izan eta 2010ean ez zen ez jaiotzarik ez heriotzarik izan. Beraz, hamar urtetan heriotza gehiago izan dira jaiotzak baino, eta hirutan kopuru bera izan da: 2007, 2008 eta 2019. Heriotza asko izan ziren 2006ra arte. Jaiotza baten ondoren 2011 eta 2017 artean hildako asko izan ziren. Baita 2021ean ere. Iturmendin epe horretan jaiotako gehien izan den urtean 2015 izan zen, 8. Herio sega gehien pasa zuen urtea, berriz, 2005, 9.

Urdiainen populazioak 2011n jo zuen goia. 2007tik igoera handia izan zuen. Baina, ordutik, biztanleria galtzeko joera nagusitu da. Jaiotzei erreparatuta sei urtetan izan dira jaiotakoak hildakoak baino gehiago. Azken zazpi urtetan behin gertatu da hori, 2019an. Jaiotzak gorako joera izan zuten 2007ra arte, baina ordutik jaitzi eta urteko sei jaiotzen inguruan egonortu dela dirudi. Bitarte horretan soilik 2005ean ez zen jaiotzarik izan Urdiainen. Gainontzeko 13 urtetan heriotza gehiago izan dira jaiotzak baino. Jaiotzen kopuru mantentzen den bitartean heriotzenak gorako joera du. Epe horretan Urdiainen jaiotako gehien izan zen urtea 2017 izan zen, 15. 2018an, berriz, hildako gehien izan ziren, 17.

Altsasuren hogeitau urte horietan 13 urtetan heriotzak jaiotzak baino gehiago izan direla eta urte batean izan dutela bi parametroek kopuru bera. 2012ra arte, gorabeherekin baina jaiotzen

kopuruaren joera goranzkoa zen. Urte haren ondoren behera egin zuen, 2018an salbu (jaiotako eta hildako kopuru bera, 62). 2013az geroztik jaiotzak baino heriotza gehiago izan dira. Hain justu urte horretan lortu zuen Altsasuk biztanle gehien: 7.711. Ordutik behera egin du herriko populazioak. Azken hiru urteetan urteko 68 heriotzaren bueltan egonortu da hildako kopuruak. Pandemiaren urteek ez zuten heriotzetan eragin. Baina jaiotze tasan jaitziera handia izan zen. Altsasun jaiotza gehien izan zen urtea 2009 izan zen, 91. Eta hildako gehieneko urtea 2017a, 92.

Olatzagutiaren biztanleriaren bilakaera beherakoa da. 2009tik herria populazioa galtzen ari da urtero. Jaiotzei dagokienez, 2005era arte gorako joera izan zuen. 2010 eta 2012 urteen artean gutxiago bada ere, jaiotza kopuru handiko urteak izan ziren. Baina ordutik jaiotze tasa apaldu eta beherako joera izan du. Aztertutako epetik sei urtetan bakarrik izan dira jaiotza gehiago heriotzak baino. Azkena 2014an. 2009an 14 jaiotza eta heriotza izan ziren. Eta gainontzeko 14

urteetan heriotzen kopuruak jaiotzen gainetik egon da Olatzagutian. Azken bederatzietan urteetan hala izan da. Gainera, pandemiako bi urteetan hildako kopuruak gora egin zuen nabarmen. Bi hamarkada horietan jaiotako gehien izan den urtea 2005 urtean izan da, 22. Hildako gehieneko urtea, berriz, 2013, 25.

Ziordiak 2008an biztanleri kopuruan gailurra lortu ondoren, populazioa galtzeko joera nagusitu da herrian. Jaiotzei erreparatuta, 2012ra arte, gorabeherekin, baina beherako joera izan zuen. 2013 eta 17a bitartean gorako joera izan zuen, eta eten baten ondoren, azken bi urtetan gora egin zuen jaiotze tasak. Aztertutako aldian bi urtetan bakarrik daude jaiotako gehiago hildakoak baino: 2009 eta 2014. 2018an bina jaiotza eta heriotza izan ziren. Baina hori salbuespena da azken zazpi urteetako joeran, ohikoena herritar gehiago hiltzea baita. Heriotzak, pittetka, gorako joera du Ziordian. Bi hamarkada horietan ume gehien jaio zen urtea 2014 izan zen, 9. Eta hildako gehieneko urtea, berriz, 2007, 12.



BELEIXE IRRATIAREN
ELKARRIZKETA GUZTIAK:
WWW.GUAIXE.EUS

107.3 FM
beleixe



EGUBERRIETAKO
GEHIGARRIA

guaixe

2023 URTE BERRI ON!

2. Ite tendentziak

Denboraldi bakoitzean bezala, pasabideek, *street style*-ak, estilistek eta *celebrity*ek look onenak eskaintzen dizkigute. *Bob* ile mozketak edo geruzak eramango dituzue? Ilehorrira edo gaztaina kolorera itzuliko gara? Aukerak ugariak dira zure ileari bira bat emateko. Neguko 2022-2023 ilearen joerekin, datozen ile mozketekin, orrazkerekin eta modako ile koloreekin ausar zaitez.



Jennifer Anistonek zeramatzen bainila horia eta 90eko hamarkadako estiloa ere eskatuenetakoak dira.




Garondoa apur bat motzagoak diren adats erdiek gogor joko dute udazken honetan *bob* ebaketa klasikoaren alternatiba gisa.



Klabikut desfilatua ziurrenik 2022-2023 udazken honetako ile mozketak izar bihurtu da. Izan ere, *bob* luzanga hau.



Melena lauei testura eransteko, puntuak gehituko zaizkie, halaber, xafla edo kizkurgailu batekin lor daitezkeen uhin leunei.



Pixie dotoreak ere indartsu iritsi dira, motzenetik desordenatuenera, aurpegi bakoitzera eta ilearen testurara egokituta.



Mototsa lokarri moduko osagarriekin jaisten da, *PatBoren* desfilean ikusi dugun bezala.


@buxek_ileapaindegia
Fernando Urkia 1,
Arbizu
948 461 698

Vizu
Nerea Vizuete Fernández
ileapaindegia
948 56 36 35
Zirrinkale, 5 | Iturmendi

3. Betaurrekoak



Urre, zilar edo arrosa kolorekoak: metalizatuak betaurrekoen unibertsioan gailentzen dira.



Soilak, sofisticatuak eta dotoreak: armazoi gardena duten betaurrekoak nabarmentzen dira.



Handiak, beltzak eta *vintage* itxurarekin: betaurreko *retro*ak ez dira oharkabeen pasako.




Sakanaoptika
optometria • audiometria • kontaktologia

*Eguberri hauetan
eskatu zoriontasuna*



948 563 124 • Intxostia zeharbidea • Altsasu • www.optikasakana.com 

4. Moda

Egun bereziak ditugu aurretik. Eguberrietako egunetan dotore egotea gustuko dugu eta oraindik neguan gaudenez gure herrietako dendetako erakusleihoak neguko arropaz beteta ditugu. Modan, aurten-go joerak zeintzuk diren eza-gutu nahi dituzue?

Arropa

Kirol estetikak ere modan jarraituko du aurten, janzteko arroparekin fusionatuta. Hauek emaitza dotoreak eta erosoak ekarriko dizkigute. Janzteko txandal galtzak, tenis jokalarien estiloko gonak, errugbi kutsuko kamiseta handiak eta unibertsitateetako taldeetako ohiko jakak. Mugikortasun eta askatasun handia ematen dute jantzi hauek, estetika eta dotorezia alde batera utzi gabe.



Joera bohemiaok bueltan dira: lore estanpatuak, patchworka, litsak, kakorrazt lanak, tindatutako arropak... etxean egindako eta ukitu artisauak dituzten jantziak izango dira nagusi, baina dotoretasuna nabarmenduz. Honekin batera diseinu jasagarriak eta artisautza erdigunean jarri nahi dira, moda arduratsua sustatuz. Jantzi mota guztietarako balio du joera honek: jakak, galtzak, soinekoak... baita oinetakoak ere.



Ausartenentzako moda berri eta deigarri bat erakutsiko dizuegu: jantzi metalizatuak, lentejuelak, arropa distiratsuak eta kristal brodatuak, arropa, osagarri eta oinetakoetan nagusituko direnak. Ospakizun eta ekitaldi formaletan ikusiko da batez ere joera hau; beltzean, urre kolorean eta zilar kolorean nagusiki.



Lur koloreak eta pastel koloreak nabarmentzen dira batez ere jantzietan; berdea, urdina, marroia...mota guztietako estanpatuekin konbina daitezke, geometrikoak eta koadrodunak izanik nabarmenenak.



Gazteak janzterakoan beti erosotasunaren bila goaz. Arroparekin haurra gustura eta pozik egoteko. Beste behin askatasuna ematen dien jantziak aukeratuko ditugu. Txandalak eta kirola egiteko arropak egunerokoan erabiltzeko aproposak dira, baina jantzi formalagoak behar direnean ere dotoretasunak eta erosotasunak bat egin dezakete. Denim joera adibide bat izan daiteke, jaka, galtza, alkandora eta gona bakeroak, besteak beste.



MAPFRE

JOSE ANTONIO IMAZ PRIM
jimazpr@mapfre.com
948 563 354 · San Juan 48 behekoa · ALTSASU



Oinetakoak

Janzkera osatzeko, oinetako egokiak aukeratzea ezinbestekoa da. Udazken neguan botak eta zapata itxiak ateratzen ditugu armairutik euriari eta hotzari aurre egiteko, baina funtzionaltasuna eta estetika bateragarriak direla erakutsi digute azken tendentziek.



Plataformadun zapatak dira nagusi, takoidunak zein planoak. Zentimetro pare bat erraztasunez lortzeko balio dute oinetako hauek, erosotasunari uko egin beharrik gabe. Gainera egun euritsueta putzuetan ez bustitzeko baliagarriak dira.



Bota altuak ere klasiko bat dira, eta hainbat kolore eta formatan aurki ditzakegu; takoidunak, cowboy itxurakoak, zilar kolorekoak... konbinatzeko errazak, goxoak eta erosoak dira, neguko egun hotzetarako aproposak.



Zoriontsuak

13 UDABERRI LOREDENDA
AKEITA KAFETEGIA
ALLIANZ ASEGURUAK
ARKATZ LIBURU-DENDA
ARKUPE ALTZARIAK KOLTZOIDENDA
ASENSIO MODA
BENGOETXEA OINETAKOAK
CRISTINA JANARI-DENDA
DEPORTES LEZEA
EKIN MODA
GAUTXORI TABERNA
GERTU SAKANA
HERBORISTERIA SARABE

HIRUON HARATEGIA
IKER KIROLAK
INMOBILIARIA AGURAIN
IULENE
IZARA CORTINA-STOR
JOSELEN MODA
KATUKA
NEXT MOVIL
MARI CARMEN
MARIGORRI
ML MODA GIZONEZKOA
ML MODA EMAKUMEZKOA
LARKA
LASA KIROLAK

LIBURUNDA PAPERDENDA ETA LUBURUDENDA
LOREA LOREDENDA ETA BELARDENDA
PINPLINPAUXA
RAMOS ETXETRESNAK
RAMOS ELEKTRIZITATEA
SANTA CRUZ ALTZARIAK ETA SUKALDEAK
SAKANA OPTIKA
SARE OINETAKOAK
SCOOBY TXAKURREN ILE-APAINKETA
SORKUNDE HARATEGIA
TU TIENDA ESPECIAL
TXARTEL
TXIKITXO
XAGU INFORMATIKA

*Oparitu, erosi eta Altsasuko tokiko merkataritza lagundu. Herri bateratuagoa egingo dugu.
Regala, compra y apoya al comercio local de Alsasua. Haremos un pueblo más unido. Eskerrik asko!*



Actuación subvencionada por el Gobierno de Navarra - Nafarroako Gobernua

5. Errezetak

Etxeko taloak txistorrarekin

Osagaiak:

100 g arto irin
50-80 ml ur oso bero
Gatza
300 g txistorra
Tipula more bat

1. Tipula tiretan moztu eta zartaginean olioarekin karamelizatzen jarri, su baxuan.
2. Arto irina katilu batean jarri eta gatza gehitu.
3. Sutan berotutako ura irinari pixkanaka botatzen joan, eskuarekin bildu bitartean.
4. Ura botatzen joan gogorra egoteari utzi arte eta biguna gelditu gabe. Biguna gelditzen bada, zartaginean itsatsiko zaigu.
5. Behin prest dagoela, itxoin gabe, bola bat eskuetan hartu, irin pixkat gehitu eta egurrezko taula baten gainean zanpatu. Talo forma eman arte.
6. Zartagina su altuan berotu, eta taloa jarri. Ahalik eta buelta gutxien emateko, alde bat lehenengo eta bestea ondoren xigortu.
7. Taloak sareta batean utzi, eta horrela egiten bukatuko da.
8. Txistorra zartagin batean frijitu.
9. Taloa tipularekin eta txistorrarekin bete.

Eguberrietako oilasko betea



CARNICERIA I. ARREGUI
HARATEGI ETA URDAITEGIA
Sakanako hiltegian hildako haragia



Etxeko obradorea: tripota · tripotxa · mihia · kalluak · saltxitxak · frituak
948 576 067 · 646 20 85 23
Herriko plaza z/g · LAKUNTZA

HARATEGIA
Lopez de Goykoetxea
CARNICERIA



Arkumea, antxumea eta txerrikumea temperatura baxuan eginda. 30 minutu labean eta mahaira.

ETXEAN HAZITAKO TXEKOR HARAGIA
ETXERA ERAMATEKO ZERBITZUA

Deitu 948 562 157 | 617 766 536 edo 

LORES S.L.



Utzubar industrialdea Arbizu
948 460 499
Nafarroako berezko txistorra.



Osagaiak:

Hezurrik gabeko baserriko oilasko handi bat
 500 g oilasko bularki xehatu
 500 g txerri solomo xehatu
 250 g urdaiazpiko xehatu
 35 g ogi xehatu
 2 arrautza
 50 g mertxika sikatu
 50 g mahaspasa
 30 ml Pedro Ximenez
 3 g kanela hauts
 Piper beltza
 Gatza
 20 g gurin urtu
 200 ml cava

1. Labea berotzen jarri 200 gradutara.
2. Betegarria nahastu; bularkia, solomoa, urdaiazpikoa, ogi xehatua, arrautza irabiatuak, mertxika sikatua, mahaspasak, Pedro Ximeneza, kanela, piper beltz pixka bat eta gatza kaiku batean nahastu.
3. Oilasko garbia beheko partetik betegarriaz bete, azala hautsi gabe.
4. Irekidura hari eta jostorratzarekin itxi, betegarria atera ez dadin.
5. Oilaskoa gurin urtuarekin igurtzi.
6. Labean sartu, zilarrezko paperaz inguratuta.
7. Ordu beteren ondoren, zilarrezko papera kendu eta cavaz busti. Beste ordu batez labean sartu.
8. Egina dagonean, ordu betez kanpoan utzi.
9. Moztu eta zerbitzatu.



Jengibreko galletak

Osagaiak:

450 g irin
 200 g gurin
 100 g de azukre beltz
 Arrautza bat
 80 g ezti
 2 kanela koilarakadatxo
 Koilarakadatxo bat jengibre hauts

1. Gurina eta azukre beltza irabiatu, bits itxura hartzen duen arte.
2. Arrautza gehitu, eta irabiatzen jarraitu.
3. Ezti gehitu, eta irabiatzen jarraitu.
4. Gainontzeko osagarriak gehitu eta irabiagailuaren abiadura minimora jaitsi.
5. Nahasketa guztia homogeneizatzen denean, irabiatzeari utzi. Gehiegi irabiatuz gero galletak gogorak gelditu daitezke.
6. Orea bi zatitan banatu, eta plastikozko paperean bildu.
7. 15 minutuz hozkailuan utzi.
8. Orea arrabolaz luzatu, 5 edo 6 milimetroetako lodiera izan arte, eta ondoren hozkailuan ordu betez sartu.
9. Eguberrietako forma duten moldeekin orea moztu, eta galletak laberako erretailuan jarri laberako paperarekin. Galleten artean 2 zentimetro utzi.
10. Galletak 180 gradutara 15 minutuz laberatu, edo ertzak txigortu arte.
11. Galletak labetik atera eta 5 minutuz hozten utzi.

BERRITU JATETXEKO MAHAIZAPIAK

gk DISEINUA ETA KOMUNIKAZIOA

619 821 436
 info@gkomunikazioa.eus

urrutia

Ongi pasa festak!

Irurtzun - 948 500 086

Aurretik eskatzeke: Mantekatuak, trufak, stollenak, gabonetako tronkoak, mihoja, pantxineta, goxua, turroiak.

PORTUKO

Altsasu: 948 563 822 (denda)
 948 467 153 (lantegia)
 Etxarri Aranatz: 948 460 988

Euskarazko katalogoa



Sakanako sortzaileak

6. Kultur katalogoa



BIHURRIKERIAK
IKASTOLEN ELKARTEA
7 URTETIK AURRERA
11-20 EURO

Hitzak asmatzeko hiru jolas batzen ditu: Elkar ezagutzen duzue? Deskribapenen bidez pertsonaia asmatzeko jolasa, Tabu debekatutako hitzak erabili gabe hitz nagusia asmatzeko jolasa eta Max-Mix mimika eta kantaren bidez hitza asmatzeko jolasa. Asmatu beharreko hitzak eta jolas bakoitzaren prozedura azalduz 60 karta datoz, 1-2-3 dadoa eta hare erlojua, hitzak area erori bitartean asmatu behar direlako.



EKOGRAFIAK
LORELEI
ELKAR
14 URTETIK AURRERA
11-22 EURO

2022. urtean 25 urte beteko ditu taldearen lehen lanaren argitaratzea. Efemeridearekin batera haien sormen ibilbidea ospatu, gozatu, partekatu eta erregalatu nahi dute diskoaren grabaketarekin. Musika tresna zaharrekin jai koloretsu batez errebelatu nahi dituzte ekografia grisak. Lorelei osatzen duten kideek (Mikel, Asier, Antxon eta Loiola) mugaraino eramango duten sormena, mugak onartzeko.



Galtzerdi erdi
Ainhoa Ramirez de Alda



GALTZAGORRIAK DABILTZA ETXEAN
XABIER OLASO ETA
MANU ORTEGA
IBAIZABAL
5-9 URTE
11-20 EURO

Ordu txikitan idazten ari zela, lo seko gelditu zen Xabier. Ahots batzuek esnatu zuten bat-batean. Begiak ireki, eta galtzagorri batzuk ikusi zituen ingurumarian. Lau ziren guztira, bihurriak eta jostariak. Langile prestuak ere baziren, eta buru-belarri lagundu zioten Xabierri. Hauxe duzue beraien kontakizuna, guztiz dibertigarria. Ezagutu nahi duzue?



FOIXEKO KATALINA
ANGEL REKALDE
GOIKOETXEA ETA AINARA
AZPIAZU ADURIZ 'AXPI'
NABARRALDE
12 URTETIK AURRERA
10 EURO

Munduan Medicitarrak agertzen ziren bitartean Nafarroan Errenazimentuak emakume aurpegia zuen. Gure historia-koro garai ezezaguna da, kontzientziak ezkutatuak. Europako inperio handiak, espainiarra eta frantsesa, gerra, ambizio eta basakeria artean sortzen ziren. Gaztela eta Aragoi Nafarroaren konkista prestatzen ari ziren. Gure lurraldean, Katalina erreginak herriaren bizi baldintzak aldatzen zituen.



Etxarri Aranazko San Miguel irin-fabrika
Juana Mari Jauregi eta Victor Manuel Egia



Etsi
Haizkan

MURGILDU, AURKITU, GOZATU!

0-16 urte

www.katalogoa.eus

JOSTAILU ETA JOKOAK
MUSIKA - DVD FILMAK
APP-AK - ALDIZKARIAK
IBURUAK - KOMIKIAK
GURASOENTZAKO MATERIALA

KATALOGOa.eus

kaxeta
LIBURUEN DENDA

Zure opariak
hemen aurkituko dituzu!

fotokopia@kaxeta.net
628 542 519 | 948 460 477

TXARTEL
TX

WWW.TXARTEL.NET

948 564 002
txartel@txartel.net



Afecto dominó
Ángel Pérez



Mel eta ehun goibel
Castillo Suarez eta Jose Mari Morcillo 'Morkots'




Esaten ez den guztian
Izaskun Etxeberria



Lyrica garaia
Jon Arretxe



Aranatz haraneko zeraren zerak
Jose Luis Erdozia Mauleon




Burundako hiztegia
Koldo Zuazo



Irurtzun eta Atakondoa
Kiri Irurtzun eta Irurtzun
Manuel Iznola Gomez



Dardarak
Nerea Balda Sanjuan



Askatu aingura
Beietz!



Deserrite
Deserrite




Revuelta
Kaos Etiliko



Sin filtro
Kaotiko



La Topadora
La Topadora



Cuidate
Los del Rayo



Kronosen diktadura
Mendikoa



Zelanda
Zelanda




Eztanda




Haitza



J. Haybers



Muga Zero




Sarraski



Erreinu zaharra abestia
Nafarroa 1512



Tatuatuta abestia
Alerta Gorria




Uholdeak: X hau ez da okupatzen...
Jone Rubio



Presumptes culpables.
Els altres Altsasu
TV3

7. Zinema euskaraz

Egun aproposak ditugu aurretik etxeokoin gozatzeko, pelikulak euskaraz bizitzeko eta pantailakeuskaraz.eus helbidean gaur egungo nobedadeen berri izan dezakegu. Guk batzuen aurrerapena besterik ez dugu egingo, baina animatu nahi zaituztegu web orria bisitatu eta pantailaz pantaila euskaraz bizi zaitezten!



Pinocchio (2022)

Fantasia-musikala-drama

1930eko hamarkadan Italian girotutako Pinotxo filmaren stop motion animaziozko bertsio musikala. Guillermo del Torok eta Mark Gustafsonen zuzendu zuten film hau, eta jatorrizko bertsioan aktore talde handia dago: Ewan McGregor (Kilker Hiztuna), David Bradley (Geppetto) eta Gregory Mann (Pinotxo). Finn Wolfhard, Cate Blanchett (Oscar sariaren irabazlea), John Turturro, Ron Perlman, Tim Blake Nelson, Burn Gorman, Christoph Waltz (Oscar sariaren irabazlea) eta Tilda Swinton (Oscar sariaren irabazlea) aktoreek ere parte hartzen dute.

Zuzendaria: Guillermo del Toro eta Mark Gustafson.

Gidoia: Guillermo del Toro, Patrick McHale, Pertsonaia: Carlo Collodi, Eleberria: Carlo Collodi, Historia: Guillermo del Toro eta Matthew Robbins.

Musika: Alexandre Desplat.

Erregeak Bizarzuriren aurka (2022)

Komedia-fantasia

Errege Magoek, Bizarzurik gero eta protagonismo gehiago kentzeaz nazkatuta, aurre egitea erabaki dute, jakin gabe gerra horrek etsai komun askoz arriskutsuagoa piztuko duela; Krampus hain zuzen ere.

Zuzendaria: Paco Caballero.

Aktoreak: Karra Elejalde, David Verdaguer, Matias Janick, Andrés Almeida, Adal Ramones, Eva Ugarte, Isa Montalbán, Cosette Silguero, Laura Quirós.

Gidoia: Carmen López-Areal, Benjamín Herranz, Lelé Morales, Eric Navarro.

Musika: Pilar Onares.

Argazkia: David Valldepérez.

Lady Chatterley-ren maitalea (2022)

Drama-erromantikoa

D.H. Lawrence-en eleberriaren egokitza-pena, senarrarekiko maitasuna galtzen duenean, bere garaiko era eta tradizioekin hausten duen emakume bati buruzkoa. Harreman bat hasiko du bere finkan lan egiten duen gizon batekin.

Zuzendaria: Laure de Clermont-Tonnerre.

Aktoreak: Emma Corrin, Jack O'Connell, Joely Richardson, Faye Marsay, Ella Hunt, Matthew Duckett, Marianne McIvor, Sandra Huggett, Nicholas Bishop, Eugene O'Hare, Ellie Piercy.

Gidoia: David Magee, Eleberria: D.H. Lawrence.

Musika: Pilar Onares.

Argazkia: Benoît Delhomme.

Scrooge: Gabon kanta (2022)

Abentura-komedia-fantasia

Eguberri bezperan, Ebenezer Scrooge berekoi eta zikoitzak gau bakar eta hotza du bere iraganari (eta etorkizunari) berandu baino lehen aurre egiteko.

Zuzendaria: Stephen Donnelly.

Gidoia: Leslie Bricusse, Stephen Donnelly, Eleberria: Charles Dickens.

Musika: Jeremy Holland-Smith.

BiL TOKI
TABERNA • JATETKA

Eguneko menua 11 €

Menu berezia 15 €

948 562 348 • Altsasu

Kaixo
Kafetegia • Jateketa

Menua, plater konbinatuak eta ogitartekook aukeran

García Ximenez 20-22
948 469 124 Altsasu
www.restauranteikaixo.com

xapatero
taberna

Etxeko kroketak eta bokatak

948 460 162 • Etxarri Aranatz

DERRY TABERNA
ETXARRI ARANATZ

SAOR DOIRE

948 461 703

Kale Nagusia, 8 (Etxarri Aranatz)

Urte berri on!



Foru plaza 23, 1 31800 Altsasu (Nafarroa)
Telefona: 948 564 275 | www.guaixe.eus



Olentzero eta Mari Domingi!
IKAZTECIETA KALEA, 1
SAKANA



Igorlea:

KOLABORAZIOA

O tempora, o mores! (euskararen kale-erabilera Sakanan)**JOSE LUIS ERDOZIA MAULEON**

Haiek garaiak, haiek ohiturak! Marco Tulio Ciceron erromatarrak erabili zuen batzuetan izenburuko esamolde edo lokuzioa, Catilina-ren eta Verres-en aurkako hitzaldi edo diskurtsoetan esate baterako. Horietan, momentuko usadio eta ohiturak kritikatzeko zituen, aurreko garaietako ohitura onak kontrajarririk ordukoei.

Ez nator ni honekin iraganeko edozein garai egungoa baino hobea zenik esatera, ezta gutxiago ere, ez baitute aurrekoek eta oraingoek parekatzerik, ez dute antzik txikiena ere bizitzaren oinarriko beharretan eta horien kalitatean gutxienez.

Zer dela eta, geroz, garai bateko aittun zaharren erretolikaren itxura daukan hasiera hau? Bada, atzera berriz edo beste behin, gure herriaren ikur eta osagai nagusia den hizkuntzaren egungo ajeekin natorkizuela, nola ez bestela!

Bistan da gaur egun hiztun potentzial gehiago dituela euskarak Sakanan eta Euskal herrian ere bai, duela bosten

bat hamarkada baino. Ez da zalantzarik baieztatzeko, era berean, egungo euskal hiztun gehienak alfabetatuak direla eta hori aurreko garaietako aurrean abantaila beharko litzatekeela erabileran.

Ezin, ordea, ziurtasun berberarekin esan egungo hiztunen ahozko ekoizpena duela bost hamarkadako alfabetatugabeena baino dotoreagoa denik, orokorrean behintzat. Eta hanka sartzeko inolako beldurrik gabe esan dezakegu, ordukoan maizago entzuten zela euskara Sakanako herri euskaldunetan eta Euskal Herriko gainerakoetan ere bai. Ez ditugu egun bezala duela berrogeita hamar-hirurogei urteko datu zehatzak, frankismoak bere ohiko inpunitatearekin debekua jartzen zionean euskarari, baina bai dugu bizirik oroimena eta ordurako Sakanako zenbait herritan aipatu inpunitateak bertako hizkeraren ia desagertzea lortuta izanagatik, gehiago entzuten zela Sakanako kale askotan tokian tokiko hizkera esan dezakegu.

Orain, XXI. mendearen hirugarren hamarkadan

sartuta dagoeneko eta teorian, edo era ofizialean, gutxienez euskarak aldeko bolada ezagutzen duela zenbait hamarkadetan, Sakanan kale erabilerak, modurik baikorrenean esanda, ez du lortzen sakandarren arteko komunikazio tresna eraginkorra izatea. Bere erabilera Sakanako kaleetan 2021ean ez da %25era iritsi eta gaztelaniarena, aldiz, %73koa da. Gainerako hizkuntzek (askotan euskara ez erabiltzearen eragile bezala agertu izan dituztenak batzuek) ez dute ia pisurik, %2,6. Garbi dago, orduan, zein den bertako hizkerari egunerokotasunean konpetentzia egiten diona. Eta 'konpetentzia egin' erabili dut, baina berez, bataren eta bestearen zenbakiak ikusita, 'itolarrria sortzen' diona esan beharko nuke.

Zuzenean, inpunitate osoarekin, itotzen saiatu zen frankismoa aurreko mendean eta ez zuen lortu. Itotzen saiatu izan dira inpunitate estaliarekin azken lau hamarkadetan, baina estrategia aldatuak, hau da, lehengo makila erabili beharrean, orain, aldeko kanpaina huts ugari eta horiek bultzatzeko dirulaguntzak baliatzen dituzte (metropoliak koloniarrenganako estrategia aldaketa). Hezkuntza arloa euskaratu dute EAEn eta Nafarroako zenbait eskualdeetan, baina ez dute gainerako arloetan (industria, zerbitzuak, osasuna, kazetaritza, aisialdia...) behar bezala eragin. Politikoez ere euskara jakinagatik, gaztelania hutsean burutzen dituzte haien eginkizun gehienak. Honekin guztiarekin batera, euskararen egoera larriagotuz, "buenismo" edo ontasuna (gatazken aurrean hauen larritasuna arintzen saiatu eta ontasunez eta gehiegizko tolerantziak amore ematen duenaren jarrera) zabaltzen ari da. Jarrera hau ez da soilik agintarien artean baliatzen, kaleetan ere gero eta zabalduago dagoelakoan nago.

Nola uler daitezke, bestela, Sakanako azken bi hamarkadetako euskararen kale-erabileraren datuak?

2018an, sakandarren %42a euskaldun elebiduna zen (hizkuntza gaitasuna zuen) eta beste %14,2ak ulertzen zuen (hartzailea zen) eta pentsatzekoa da lau urteren buruan gehiago izanen direla batzuk eta besteak. Erdaldun elebakarrak (gaztelania eta gainerako hizkuntzak), aldiz, %43,8 ziren eta lau urte geroago, gutxiago izanen direla pentsa daiteke, euskaldun elebidunen kopurua handituz joan bada behintzat.

Batzuk eta besteak kontuan izanik, euskaraz aritzeko moduan zen sakandarren erdia baino gehiago eta hara non, 2021eko kale-erabileraren neurketan, soilik %24,3a izan da euskara komunikazio-hizkuntza moduan erabili duena. Erdaldun elebakarrek, aldiz, sakandarren erdia baino gutxiago izanik 2018an, %75,7ko erabilera izan dute 2021ean. Lehentxeago aipatzen nuen "buenismo"-rik gabe nekez uler daitezke.

Azkenik, ustez guztia (instituzioak, gizartea, hezkuntza, iritziak...) alde izanik euskarak gurean, begira nolako bilakabidea izan duen azken bi hamarkadetan (2001-2021): lehen hamarkada eta erdian (15 urte), poliki-poliki (neixu-neixu esanzen luketen moduan duela mende bateko etxarriarrek), ez txapliguak botatzeko adina, baina erabilera handituz zihoan (%20,7; %21,8; %22,8; %24,8); eta azken bosturtekoan (2016-2021), hara non ez den soilik aipatu erabilera handitu, baizik eta puntu erdian jaitsi den (%24,3).

Eta adinaren arabera kontuan izaten baditugu, are larriagoa iruditzen zait euskararen egoera gurean, gazteen (15-24) eta helduen (25-64) adin-tarteak baitira azken bosturtekoan erabileran beheraldia izan dutenak, puntu eta erdi pasatxo gazteek (6,5 puntu behera azken hamar


urteetan) eta %0,7 helduek. Beste bi adin-tarteak dagokienez, haurrek (2-14) %1,3 igo dute erabileran (10,2 puntu bi hamarkadetan) eta adinekoek (>64 urte) lehen hamarkada eta erdian jaitsiera handia izan bazuten ere, oraingoan ia %4 igo dute.

Garaiak eta ohiturak aipatzen nituen artikulua hasieran eta ildo horretatik joaz, nerabearoa aurreratzen eta gaztaroa luzatzen ezagutzen ari garen garai hauetan, esanen dut lan handia egin dezaketela gazteen antolaguneez euskararen erabileran Sakanan eta Euskal Herri osoan, baina eraginkorrak izateko laguntzak behar izanen dituzte. Hortxe instituzioen ardura. Ezagutzen ditut zertxobait Etxarriko Gaztetxearen eta baita Lakuntzako zenbait gazteren eta horren gazte ez direnen dinamikak eta oso lagungarri izaten ari zaizkio gure hizkuntzaren osasunari. Hortik etor dakioko Sakanako euskararen erabilerari arnasa.

DUELA 25 URTE...

**Santa Luzia ospatu zuten**

Ziordiarrek garai batean bai, baina ermita desagertu zenez geroztik, ez zuten Santa Luzia ospatzen. Hala ere, orduko jai giroa berreskuratzeko asmoa agertu zuen Ziordiko emakumezko talde batek. Elizan meza izan zen, eta Santa Luziari aureskua dantzatu zioten. 18:00etan merendu-afaria izan zen: torrijak Urbasa tabernan, gaztaina erreak Etxaleku tabernan eta txistorra gaztetxean. La Cigarrilla txarangak eta trikitilariak girotu zuten ospakizuna.



Maidar Betelu Ganboa IRAÑETA

Udan 18 urte bete zituen Iosune Urrea Beraza karatekak eta urtebetetzea giltzarria izan zen bere kirol ibilbidean, juniorretik 21 urtez azpiko mailara igo zelako. Urrian Turkian jokaturako Munduko Karate Txapelketan brontzezko domina lortu zuen urte bat lehenago Europako Txapelketara joateko hautatu ez zuten karateka irintarrak. Justizia poetikoa omen.

Zergatik karatea?

Sei urte nituela hasi nintzen, nire ahizpa Berriozarko Karate Klubean karatera zihoalako. Karatea arte martzial bat da, eta bi modalitate ditu, kata eta borroka edo kumitea. Nik gehienbat borrokalantzen dut, baina gerrikoak lortzeko kata ezagutzak izan behar dituzu –erakustaldi modukoa, etsaien aurkako eraso eta defentsa mugimenduak egitea–. Karatean hankak, besoak eta ukondoak erabiltzen dira, baina helburua ez da arerioaren K.O.a lortzea. Denbora pasa ahala ohartu naiz karateak asko ematen didala: autokontrola eta neure buruarekiko konfiantza.

Txikitatik nabarmendu zinen?

9 urte nituela hasi nintzen txapelketetan. 2014an, 11 urterekin, Espainiako txapelkunordea izan nintzen, eta 2017an Grand Winner, hau da, liga nazionalako txapelketa guztietan lortutako puntuak kontuan hartuta, nire mailako onena ranking nazionalan. Baina 2021 izan zen aurrerapausoa eman nuen urtea. Espainiako txapelduna eta liga nazionalako txapelduna izan nintzen junior mailan. Pandemia baino lehen oso estu hartzen nuen txapelketa, baina ondoren karatea hobby gisa hartu nuen, eta uneoro dena ematearen presio hori gainetik kentzeak ongi egin zidan.

Nafarroako txapelduna, sarritan.

2014. urtetik Nafarroako txapelduna naiz borrokan, baina estatu mailako txapelketak zailagoak dira, Nafarroan karateka gutxi gaudelako eta maila ez delako horren altua. Nafarroako txapelketa bat bizpahiru konbaterekin egin dezakezu, baina Espainian bospasei konbate dira eta maila askoz ere altuagoa da. Nazioartean Espainiak maila handia du.

Selekzioak azken urtean egindako lana sarituko zuen 2022ko Karate Mundialetarako zu hautatzeko.

2021eko azaroan junior mailako Espainiako karate txapelduna izan nintzen. Maila nazionalan

"Brontzea. Ustedut ez dudala Mundialetakoa guztiz barneratu"

IOSUNE URRA BERAZA KARATEKA

KARATEA Munduko Karate Txapelketan brontzezko domina lortu zuen karateka irintarrak, eta asteburuan Liga Nazionaleko finalak jokatu ditu A Coruñan



Iosune Urrea Beraza, munduko txapelketako brontzea lortu berri, hunkituta. UTZITAKOIA

irabazi ahal zen guztia irabazi nuen, baina aurtengo ekainean Pragan jokaturako Europako Karate Txapelketarako Espainiako hautatzailearen alaba aukeratu zuten. Erabaki hori asimilatzea izugarri kostatu zitzaidan. Irabazi ahal zen guztia irabazita, Europako Txapelketa ezingo nintzela joan konturatzea oso gogorra izan zen.

Hori bidegabea da, guztiz.

Orain hasi naiz honetaz hitz egiten, askatzen, baina momentuan jota geratu nintzen. Jendea txundituta zegoen, baina nola da posible? Ez etsitzeko esaten zidaten, azkenean nazioarteko txapelketak iritsiko zirela, nire emaitzak oso onak zirelako. Babes handia nuen, baina konturatu nintzen ez zegoela nire esku, ezin zela ezer egin. Gogoan dut astebetera liga nazionalako finala jokatu zela. Lehena nintzen, alde handiarekin, baina psikologikoki gaizki nengoen eta lehendabiziko konbatea galdu egin nuen. 2022an errekupe ratzen hasi nintzen, kostata.

Aurten 18 urte betetzea eta junior maila atzean uztea nolabaiteko liberazioa izan da zuretako.

"IAZ GUZTIA IRABAZI NUEN, BAINA EUROPARA HAUTATZAILEAREN ALABA JOAN ZEN. JOTA GERATU NINTZEN"

Udan 18 urte bete nituen eta 21 urtez azpiko mailara igo nintzen. Eta urrian Konyan (Turkia) jokatu ziren Munduko Karate Txapelketan aritzeko hautatu ninduen Espainiako selekzioak.

Hautatua izatea espero al zenuen?

Jende guztiak zioen nire emaitzak ikusita –aurten 61 kg azpiko kategorian 21 urtez azpiko liga nazionalako txapelduna izan da eta senior mailako liga nazionalako txapelduna– argi zegoela hautatuetako bat izango nintzela, baina iaz gertatutakoa ikusita, zerrenda ikusi arte ez nuen sinetsi nahi izan. Gainera, nire lehendabiziko urtea zen 21 urtez azpiko mailan, inoiz ez nintzen nazioarteko txapelketetan aritu eta ez nuen oso argi. Espainiako selekzioetik hainbat kontzentrazioetarako deitu ninduten; irailan Mallorcakoan egon nintzen, ondoren Palma del Rion (Cordoba)... Eta azkenean Mundialeko zerrendan nire izena agertu zen. Mundialera abiatu baino aste bat lehenago Madrilan egon ginen kontzentratuta eta handik zuzenean jo genuen Turkiara.

Munduko Karate Txapelketan lehiatzea sekulako esperientzia izango zen, ezta?

Sekulakoa. 21 urtez azpiko 61 kg baino gutxiagoko mailan 30-40 karateka inguru lehiatuko ginen. Ni lasai nengoen, ez bainuen espektatiba handirik, nazioarte mailan nire lehen aldia baitzen. Helburua lehen konbatea gainditzea zen, eta ahalik eta lan onena egitea, etorkizuneko txapelketei begira. Eta, jakina, ongi pasatzea. Presiorik gabe lehiatu nintzen, lasaiago, eta hobeto aritu nintzen.

Gainontzeko karateken maila handia izango zen.

Ni estatuko karatekekin lehiatzaera ohituta nago. Badakit nor den abilagoa hankekin, edo ukabilarekin... baina hemen ez nuen inor ezagutzen. Eurek ni ezta. Eta horrek mesede egin zidan: eurak hobeak ziren, baina ez ninduten ezagutzen. Konturatu gabe konbateak bata bestearen atzetik etorri ziren: lehenengo Ingalaterra, gero Austria, Hong Kong, Jordania, Alemania... eta azkenean Danimarkako ordezkariarekin, egun Europako txapelduna den Trine Fuyu Lindekin borrokatu nintzen brontzea lortzeko. Nik irabazi nuen, 6 eta 0. Urrea Gulbahar Gozutok turkiar irabazi zuen eta zilarra Reem Khamis alemaniarrek.



Irañetako herriak omenaldi polita egin zien losune Urrari eta Markos Berazari. Azken honen txapela ilobak jaso zuen. UTZITAKOIA

Zer sentitu zenuen?

Ezin nuen sinetsi. Konbatea bukatuta, negar egin nuen; ez nekien zer egiten nuen ere. Baina nola iritsi naiz ni hona? galdetzen nion neure buruari. Brontzea lortzea... Ez nintzen lortutakoaz kontziente, eta uste dut gaur egun ere ez dudala guztiz barneratu. Espainiako selekzioarako ere sorpresa galanta izan zen. Nigan konfiantza handirik ez zutela sentitzen nuen, eta mundialetan brontzea lortzarekin aho asko itxi nituen. Mundialetan lan ona egiteko gai nintzela sentitu nuen nire barrenean, eta bereziki horregatik oso hunkigarria izan zen domina lortu izana.

Zeintzuk dira munduko hirugarren karatekaren hurrengo helburuak?

Betiko klubean jarraitzen dut. Asteburu honetan Liga Nazionalako finalak jokatu dira A Coruña. Maila bakoitzean rankingeko lehen zortziak parte hartzen dugu, eta ligako lan guztiak kontuan hartuta puntu gehien lortzen dituen izango da Grand Winner. Bi mailatan borrokatuko naiz: 21 urtez azpikoan –lehen da–, eta senior mailan –laugarren da–. Espainiako Txapelketa duela hiru aste jokatu zen, eta finalerdietan arerioak nahi gabe buruan beaunarekin jo ninduen. Arbitroak ez zuen ikusi eta ezin izan zuen konbatea gelditu. Oxigenoa jarri behar izan zidaten eta ez dut gertatutakoa oroitzen. Kontua da ez zidatela hirugarren postuagatik borrokatzen utzi. Halakoak gertatzen dira, ez dago arazorik.

Eta nazioarte mailan?

Otsaileko lehen astean Europako Karate Txapelketa jokatu da



Iosune Urra Beraza, eskuinean, Mundialetako borrokaldi batean. UTZITAKOIA

Chipren. Oraindik ez dute hautatuen zerrenda argitaratu, baina bertan egotea espero dut, eta sorpresak ematen jarraitzea. Ilbeltzean ere Espainiako Senior Mailako Txapelketa jokatu da Ourense. Kategoriako gazteena naiz eta esperientzia hartzea da helburua, presiorik gabe.

Eta honi guztiari Goi Mailako Kirol Egokitze ikasketak gehitu behar dizkiozu. Nola moldatzen zara?

Gogorra da, goizean ikasketetan kirol asko egiten dugulako eta arratsaldean karateko entrenamenduak ditudalako, baina moldatzen naiz.

2024ko Pariseko Olinpiar Jokoak gertu daude.

Baina tamalez karatea ez da Parisen Olinpiar jokoak izango, aurretik kendu baitzuten jokoaren zerrendatik. Pena da. Hala ere, niretako karatea hobya da. Etortzen den guztia ongi etorria, baina nik badakit ez naizela honetatik biziko. Beraz, nire egunerokoan lehiatzen jarraituko dut orain arte bezala, gustura.

Igandean omenaldi beroa egin zizuten Irañetan.

Bai. Turkiatik bueltatu nintzanean geltokian harrera handia egin zidaten. Berriozarko lagunak zeuden, eta Irañeta erdia. Asko poztu nintzen. Eta igandean Irañetan niri eta Espainiako Enduro Txapelketa irabazi duen Markos Beraza lehengusari omenaldia egin ziguten. Ni berehala hunkitzen naiz, eta osaba-izeba aurrerakua dantzatzeko ikustea... sekulakoa izan zen, hunkigarria. Herria gurekin gogoratzea oso polita izan zen.

Mundialeko brontzezko domina oso polita izango da, baina baita Irañetako txapela ere.

Jakina! Oso eskertuta nago irintar guztiekin. Auzate ederra prestatu zuten eta oso ongi pasagenuen. Ondoren lagunekin bazkaltzera joan nintzen. Deskonektatzea primeran etorri zitzaidan. Eguberrietan lasaiago ibiltzea espero nuen, baina abenduaren 30ean Madrilen beste kontzentrazio bat dut. Oso pozik nago.



Aralarren bilduko dira mendizaleak, zendutakoak omendu eta egun polita pasatzera.

Aralar, Euskal Herriko mendigoizaleen bilgune

MENDIA Bi mendi federazioek elkarrekin antolatuko dute, lehenengoz, igandeko hitzordu berezia

Bi urte ondoren, bueltan da Mendigoizale Egundea. Eguberrien aurreko igandean ospatzen da. Orain arte Nafarroako Mendi eta Eskalada Federazioak antolatzen zuten, eta Nafarroako klub guztietako mendizaleak bildu, eurekin ez daudenak oroituz, aspaldiko lagunak ikusi eta urtea despeditzeko egun aproposa zen. Aurten Euskal Mendi Federazioa batu da antolakuntzan, bi federazioak elkarlanean dihardutenaren erakusle.

Klub bakoitza nahi duen tokitik igoko da Aralarra. Sakanako Mendizaleak taldeak 9:00etan

jarri du hitzordua Uharte Arakilen. Lakuntzatik, Lekunberritik... nahieran igoko dira gora. 11:00etan mendizaleen aldeko meza hasiko da santutegian eta Aralarko Mikel Goiaingeruak mendizaleen mendi materiala bedeinkatuko du. 12:00etarako mendizaleek hamaiketako ederra izango dute prest, eta ez dira kantak eta dantzak faltako. Aurten Amaya eta Lagunak klubak dira prestakuntzaz arduratuko direnak. Mikel Goiaingeruaren Kofradiak egunean parte hartzera deitu du, eta ohiko 12:30eko meza ere izango dela azaldu du.



Sakanako Txapelketa, Hiriberrin

XAKEA Hiriberriko Txitera elkartean jokatu da XXII. Sakanako Xake Txapelketa, abenduaren 17an, larunbata, 10:00etatik aurrera. Nafarroako Txapelketa izango da, 1.900 ELO puntutik beherakoa. 20 minutuko zortzi partidatara jokatu da. Iaz 32 xakelari lehiatu ziren eta Orvinako Mikel Otxoa gailendu zen, Ekain Galarza sakandarraren aurretik.

Ekain Imaz eta Mikel Regil, Nafarroako txapeldunak

ZIKLO-KROSA Ikusmin handia sortu zuen Burunda Txirindularitza Taldeak abenduaren 4an antolatutako Urdiaingo Ziklo-krosa-III. Benigno Mendia Oroimenezkoak, aldi berean Nafarroako Ziklo-kros txapelketa zenak

Maidet Betelu Ganboa URDIAIN Abenduaren 4an Urdiaingo Ziklo-krosa jokatu zen, Nafarroako Ziklo-kros Txapelketa izan zena. Probak harrera bikaina izan zuen eta Burunda klubak prestatutako 2,9 kilometroko ziklo-kros ibilbide politak arreta piztu zuen.

Kadeteetan (4 itzuli) Arkaitz Suso (Aranako) gailendu zen (25:58), Quesos Albeniz-Burundako Ekain Imaz altsasuarraren aurretik (26:16). Imaz izan zen Nafarroako txapelduna. Hegoi Garciak proba utzi behar izan zuen. Nesketan Irati Aranguren izan zen azkarrena (30:51), eta Sofia Los Arcos Nafarroako txapelduna (34:15).



Iker Mintegi open mailan aritu zen eta laugarren nafarra izan zen. MIREN ARREGI

Juniorretan (6 itzuli) lehia bizian Gari Ugarte (Bellota) izan zen lehena (38:07), Oinatz Farelori (Cafe Dromedario) 7 segundo aterata. Quesos Albenizko Mikel Regil laugarren sartu zen (38:58), eta Nafarroako txapelduna izan zen. Bere taldekide Iker Begiristain urdiaindarra 11. sailkatu zen (41:33), hirugarren nafarra. Emakumezkoetan juniorrak eta open mailakoak elkarrekin lehiatu ziren eta Olatz Odriozola nagusitu zen (43:59). Nafarroako txapelduna Ainara Elbusto izan zen (46:50).

Opena, oso estu

Nagusien eliteen openean (9 itzuli) Aitor Hernandez (Ermuko T.E.) eta Joseph Gerardo Ramirez (Bizikleta.com) elkarrekin iritsi ziren helmugara, eta esprintean Hernandez gailendu zen (55:08). Nafarroako txapelduna Jesus Torres izan zen (57:20). Iker Mintegi altsasuarra (Laboral Kutxa) 13. sailkatu zen (1:00:28), Alex Uncilla etxarriarra (Urbasa) 17. sartu zen (57:49), buelta batera, eta Andoni Ocaña urdiaindarra (Construcciones Qoda) 20., hiru itzulira.

Zubeztia elkarteak 140 korrikalari bildu zituen

ATLETISMOA Unai Ibarra arrasatearra eta Izaskun Beunza olaztiarra gailendu ziren abenduaren 8an Altsasuko Zubeztia elkarteak antolatutako lasterketa beteranoan. Jabi Gasanz altsasuarra bigarren sailkatu zen

Maidet Betelu Ganboa ALTSASU Abenduaren 8an jokaturako XLI. Zubeztia Elkarteak Lasterketa-I. Candi Arnanz Memorialak 140 korrikalari bildu zituen. 10 km osatzea zen erronka, hotza eta haizea bidaide zituztela. Lasterketa erritmo bizian jokatu zen. Unai Ibarra arrasatearrak ongi kontrolatu zuen proba, eta helmugara bakarrik iritsi zen (31:52). Ia minutu bat atera zion Jabi Gasanz altsasuarrari (32:50). Alberto Diaz gasteiztarrek osatu zuen podiuma (32:50). "Topera atera naiz eta bigarrenari zazpi segundo ateratzen nizkiola jabetu naizenean, erritmo horretan jarraitu dut, haizearen kontra



Jabi Gasanz, helmugarantz. MIREN ARREGI

sufritzen baina kontentu" azaldu zuen 24 urteko txapeldunak. Bere bigarren urtea zuen Zubeztian. "Gustatu zitzaidan, eta prestatzeko ongi datorkit".

Emakumezkoetan Izaskun Beunza olaztiarrak eta Maria Ordoñez iruindarrak lasterketa osoa elkarrekin egin zuten, biak Beste Iruña klubekoak baitira. Beunzak eskutik hartu zuen Ordoñez, biak batera sartzeko, baina iruindarra askatu eta garai-pena olaztiarrari utzi zion, etxean jokatzen zuelako (37:28). Biek lasterketa "polita" dela nabarmendu zuten, "giro ederrekoa". Lehen altsasuarra Ines Moreno izan zen (40:04).

Sakandarrak

Gizonak:	
1. Unai Ibarra	31:52
2. Jabi Gasanz	32:50
6. Israel Arbizu	33:46
7. Asier Estarriaga	33:49
11. Ivan Sobredo	34:51
13. Raul Audikana	35:23
16. Aritz Pellejero	36:08
21. Ander Erice	36:19
25. J. C. Gomez	36:40
27. Aritz Munarriz	36:55
31. Fco. Gomez	37:32
34. Asier Pellejero	38:30
37. Juan Luis Maiza	38:52
49. Asier Ansa	40:02
54. Imanol Guerrero	40:50
55. Egoitz Aldaz	40:59
56. A. Arrizabalaga	41:00
58. Joxea Maiza	41:06
59. Mikel Lakuntza	41:17
60. Ruben Garcia	41:17
67. Alain Iriarte	42:16
69. Aitor Salinas	42:29
77. Mikel Senar	43:08
80. Peio Vergara	43:15
82. Jon Lapuente	43:36
91. I.L. Goikoetxea	45:02

Emakumeak:	
28. Izaskun Beunza	37:28
50. Ines Moreno	40:04
90. Erkuden S. Martin	45:00
93. Arantza P. Arenaza	45:29
107. Leire Mujika	49:19
111. Maite Zabaleta	49:50
113. Aitziber Larrion	49:58
116. Olatz Azazeta	50:11

*Oharra: Sailkapen osoa laster www.guaixe.eus webgunean

FUTBOL PREFERENTEA

14. JARDUNALDIKO EMAITZAK	
Lagun Artea - Altsasu	1-3
Soto Ibarbaso - Etxarri Aranatz	2-1

SAILKAPENA	
PREFERENTEKO 1. MULTZOA	
1. Universidad de Navarra	31
6. Altsasu	24
16. Etxarri Aranatz	10
18. Lagun Artea	5

HURRENGO JARDUNALDIA	
LARUNBATA, ABENDUAK 17	
16:00 Itaroa Uharte B - Lagun A. (Uharte I.)	
IGANDEA, ABENDUAK 18	
11:30 Univ. Navarra - Altsasu (Iruñea)	
12:00 Etxarri - Valle de Egües B (San Donato)	

Altsasu liderraren kontra

Igandean Lagun Artearen kontrako lehen derbia irabazi eta gero, liderraren kontra jokatuko du igandean Altsasuk.

Etxarrik Valle de Egües hartuko du

Soto Ibarbasorekin azken unean partida galdu eta gero, Valle de Egüesen kontra puntuak bildu beharrean dago Etxarri.

Lagun Arteak puntuatu beharra du

Lakuntzako taldeak azken postuan segitzen du, Altsasuren kontrako derbia galdu eta gero. Itaroa Uharte arerio zuzenaren kontra puntuak lortu beharrean dago.

EMAKUME PREFERENTEA

10. JARDUNALDIKO EMAITZA	
Idoya - Altsasu	3-0

SAILKAPENA	
EMAKUMEEN PREFERENTEKO 1. MULTZOA	
1. Idoya	26
6. Altsasu	10

HURRENGO JARDUNALDIA	
ILBELTZAK 15	
Altsasu - Lagunak (Dantzaleku)	

Altsasuk atsedean hartuko du

Liderraren kontra galdu eta gero, Altsasuk Eguberrietako oporrak hartuko ditu.

FUTBOL ERREGIONALA


12. JARDUNALDIKO EMAITZA	
Zizur - Altsasu B	1-0

SAILKAPENA	
ERREGIONAL MAILAKO 4. MULTZOA	
1. Beti Onak B	32
11. Altsasu B	11

HURRENGO JARDUNALDIA	
LARUNBATA, ABENDUAK 17	
15:30 Altsasu B - Baztan B (Dantzaleku)	

Altsasuk Baztan hartuko du

Sailkapenean azkena den Baztan taldea hartuko du Altsasu erregionalak.



Emakumezkoen pala txapelketa. ARTXIBOA

Sakanako Nesken Pala Txapelketa, finalerdietan

PALETA GOMA Etxarriko frontoiak kategoría txikiko, lehen mailako eta eliteko finalerdiak hartuko ditu

Sakanako Mankomunitateak eta Gure Pilota elkarteak Esekiren babesarekin antolatutako XVIII. Sakanako Emakumezkoen Paleta Goma Txapelketa azken txanpara heldu da, asteburuan finalerdiak jokatu direlako.

Abenduak 16, ostirala, kategoría txikien hurrengo finalerdiak jokatu dira Etxarri Aranazko pilotalekuan, 16:45ean: Natalie-Anitz / Laiatz-Katixa; Eider-Izadi / Haizea-Onditz; Lexuri-Irati / June O.-Julene; eta Nerea-Olantz / Olaia-Naiara. Larunbatean maila txikietako finalerdiak segida izango dute, 10:00etan: Jare-Arhane / Izaro-Alaine; Malen-Arhane / Nora-Luzia; Aizeti-Iraia / Eider-Lierni; June C.-June L. / Oskia-Nahia; eta Auritze-Araitx / Uxue-June A.

Lehen mailako eta elite mailako finalerdiak ostiralean eta igandean erabakiko dira. Ostiralean, 19:00etan, lehen mailan Aldasorok eta Lopezek Eizmendi eta Lusarreta izango dituzte aurkari, eta elitean Mirenek eta Irati Ruiz de Aldak Salanueba eta Maider. Igandean, 11:00etan, lehen mailan Maciciorrek eta Naroa Otxoa etxarriarrak Artazkozen eta Kerejetaren kontra jokatu dute, eta elitean Gorostiak eta Murillok Zulaika eta Dufur.



Material aukeraketara Irurtzongo Atakondoa ikastetxeko neska-mutilak hurbildu ziren eta Zabaletarekin argazkia atera zuten.

Jose Javier Zabaleta, bere bigarren etxean

PILOTA Binakako Txapelketako partida hartuko du gaur, ostirala, Irurtzongo Bi Aizpe pilotalekuak. Elordi-Zabaleta liderrek Urrutikoetxea-Albisu izanen dituzte aurkari. Ezkurdia-Martijak Peña-Mariezurrenaren kontra jokatu dute larunbatean Labriten

Maider Betelu Ganboa IRURTZUN Binakako Pilota Txapelketako laugarren jardunaldia dago jokoan, eta jardunaldi honetan Aspe eta Baiko bi enpresetako bikoteak elkarren kontra ariko dira. Gaur, abenduak 16, ostirala, Sakanara iritsiko da Binakakoa, Irurtzongo Bi Aizpe pilotalekuak partida itzela hartuko baitu, Elordi eta Zabaleta liderrek

Urrutikoetxearen eta Albisuren kontra jokatu dutena (22:15, ETB1). Ondoren Promozioako Binakako partidari ekingo diote Salaberria-O.Etxebarriak eta Larrazabal-Eskirozek.

Asteartean egin zuten material aukeraketa. Izugarritzko hotza zegoen frontoian. "Hozkailu ederra da hau" zioen irribarrez Aspeko intendente Jon Apezetxeak.

Material aukeraketan ez zen inolako arazorik egon eta pilotariak azkar aukeratu zituzten pilotak. Takoak jantzita Baikoko Urrutikoetxea eta Albisu, segidan Irurtzunen entrenatu baituzten, eta takorik gabe, xaboi ontzia erabilia Elordik eta Zabaletak, arratsaldean Labriten entrentzekoak baitziren, Bomboneran "epelago" egongo zirelakoan.

"Bere bigarren etxean" jokatzeagatik "pozik" zegoen Zabaleta, "beti gustagarria baita etxean jokatzea". Binakakoa baino lehen Akilesen tendoian izandako arazoengatik galdetuta, ongi dagoela nabarmendu zuen. "Txapelketa urduri hasi nuen, baina espero baino askoz azkarrago osatu naiz, eta oso pozik nago". Txapelketa hasiera bikaina egin du Elordirekin, jokatuak hiru partidak irabazi dituzten biko bakarra baitira, baina txapelka janzteko faborito argiak direla esatea "gehiegizkoa" iruditzen zaio Zabaletari. "Binakakoa oso txapelketa luzea da. Ostiralean partida zaila dugu aurretik, Urrutikoetxea eta Albisu bikote sendoa baitira, baina guk gurean jarraitu behar dugu, Elordik ausart jokatzeko eta abiadura ematen, eta ni atzean, partida eusten" nabarmendu zuen.

Joseba Ezkurdiak eta Julen Martijak atzera ere Labriten jokatu dute, baina larunbatean Jon Ander Peña eta Jon Mariezkurrena izango dituzte arerio. Sakandarrek euren bigarren puntua lortu nahi dute, Baikokoek euren hirugarrena, eta lehia estua espero da Bomboneran.

Promozioa

Promozioan, Artolak hartu zuen Joanes Bakaikoaren tokia asteartean, Urretxun. Morgaetxebarriarekin elkarlanean, 9 tantotan utzi zituzten Egiguren eta Erostarbe. Hiru puntu dituzte.

Aurten txakur kros bikoitza Etxarri Aranatzen

TXAKUR KROSA Igande goizeko lasterketari bezperako iluntzeko txakurkrosa gehitu zion Triku Trail taldeak

Etxarri Aranazko Txakurkrosean parte hartzen duten kirolari asko bezperatik etortzen dira, eta horregatik bezperan proba berezia antolatzea bururatu zitzaizen Triku Trailekoei. Bi lasterketen erdigunea Etxarri Aranazko kanpina izan zen eta inguruko baso zoragarrietan jokatu zen. Larunbat iluntzean 4 kilometroko distantzia osatu zuten proban parte hartu zuten 65 kirolariak. Antolakuntzako quadeko fokuak argizatzen ziren bidea, eta sentazioa "bitxia, ederra eta berezia" izan zela diote. "Oso dibertigarria izan zen" azaldu zuen Iosu Varona donostiarrak.

azaldu zuen Iosu Varona donostiarrak.

Bikejoring modalitatean Iosu Varona (9:10) eta Sant Pere de Ribesko Marina Von Podolsky (16:06) izan ziren azkarrenak. Scooter mailan atzera ere Iosu Varona (8:49) izan zen lehena eta Juan Bautista Urtasun urdiaindarra hirugarren sailkatu zen (11:36). Azkenik, txakur krosean lehiatu ziren 54 korrikalarien artean Ruben Perez arrigorriagarra (13:12) eta Itsaso Erauskin hondarribiarra (16:03) gailendu ziren.



Etxarri Aranazko Txakurkroseko hiru partaide, irteteko prest. MIREN ARREGI

Igandean 104 kirolarik hartu zuten parte, 6 km osatzeko. Bikejoringean berriz Varona (13:05) eta Von Podolsky (22:39) nagusitu ziren, eta Igor Lanz satrustegiarrak zortzigarren sailkatu zen (31:15). Patin proba Varonak

irabazi zuen (14:57) eta Juan Bautista Urtasun laugarren sailkatu zen (17:41). Txakur krosean aritu ziren 92 korrikalarien artean Josu Galvez eskoriatzarrak (18:46) eta Olatz Zabala irundarrak (21:32) egin zuten denborarik onena.

AGENDA

EMAGUZUE ZUEN EKITALDIEN BERRI
ASTEAZKENEKO 13:00AK BAINO
LEHEN. Tel.: 948 56 42 75 / 661 523 245 /
kultura@guaixe.eus

OSTIRALA 16

ALTSASU Liburu aurkezpena.
Ainhoa Ramirez de Aldaren *Galtzerdi erdi* ipuinaren aurkezpena.
17:00etan, Txantxari ludotekan.

ALTSASU Asanblada.
Sakanako Itaiaren indarkeria matxistaren aurkako asanblada.
17:00etan, Foru plazan.

ALTSASU Gazte agenda.
Lagun ikusezina.
18:00etan, Intxostiapuntan.

ALTSASU Kontzertua.
Erkudengo Ama Abesbatzaren 40. urteurreneko Gabonetako kontzertua.
20:30ean, elizan.

OLATZAGUTIA Kontzertua.
Negra Cucaracha taldearen *Terrorfolk* kontzertua.
23:30ean, Barandi tabernan.

LARUNBATA 17

HIRIBERRI ARAKIL Txapelketa.
Sakanako XII. Xake txapelketa. Nafarroako txapelketa. Zaldi Beltza Xake taldeak eta Nafarroako Xake Federazioak antolatuta.
10:00etan, elkartean.

LAKUNTZA Hitzaldia.
Gazteon pobretzea borrokatu!
Sakanako GKSren hitzaldia.
12:00etan, Biltokin.

ALTSASU Erakustaldia.
Iskiza soinketa erritmikoko taldeko Gabonetako erakustaldia.
12:15ean, Zelandi kiroldegian.

ALTSASU Gazte agenda.
Pantaila erraldoiak.
17:30etik 20:30era, Intxostiapuntan.

ALTSASU Kontzertua.
Trasteando taldearen kontzertu solidarioa.

19:30ean, Iortia kultur gunean.

OLATZAGUTIA Emanaldia.
Anabea DJ-ren saioa.
23:30ean, Barandi tabernan.

IGANDEA 18

UHARTE ARAKIL Mendigoizaleen eguna. Nafarroako Mendi eta Eskalada Federazioak eta Euskal Mendizale Federazioak antolatuta.
09:00 Sakanako Mendizaleak Uharte Arakildik Aralarerra abiatuko dira.
11:00 Zendutako mendizaleen aldeko meza. *Santutegian.*
12:00 Auzatea. *Aterpean.*

OLATZAGUTIA Elkartasun azoka. Elkarrri Laguntza erakundearen aldeko azoka. Salmenta txokoa, Giza Eskubideen txokoa, Sentsibilizatorako txokoa Help-NA elkartearekin, Pintxoaren txokoa eta Jolasen txokoa.
12:00etatik 14:00etara, frontoian.

ETXARRI ARANATZ Kontzertua. Etxarri Aranazko Abesbatzaren eta Abesbatza txikiaren Gabonetako kontzertua.
19:00etan, elizan.

ALTSASU Elkarretaratzea.
Euskal preso eta iheslariak etxera.
20:00etan, plazan.

ASTELEHENA 19

ALTSASU Elkarretaratzea.
Pentsio duinen alde.
12:00etan, Zumalakarregi plazan.

IRURTZUN Olentzerori gutuna. Olentzerori gutuna emateko buzoraino kalejira. Olentzero Batzordeak antolatuta.
17:30ean, plazan.

IRURTZUN Solasaldia.
Han ez banengo bezala liburuaren Slavenka Drakulic' idazleari buruzko solasaldia Amaia Apaolaza itzultzailearekin, Aizpea euskara taldearen *Euskal Ekitaldiak* programaren barruan.
19:00etan, Pikuxarren.

ALTSASU Solasaldia.

ZINEMA

ALTSASU

IORTIA KULTUR GUNEKO
ARETO NAGUSIAN

Historias para no contar
Ostirala 16 19:00
Igandea 18 19:30

A todo tren 2: Ahora son ellas
Osteguna 22 19:00
Ostirala 23 19:00

IORTIA KULTUR GUNEKO
ARETO TXIKIAN

Kepa Junkera: Berpiztu-Renacer
zineforuma
Igandea 18 19:00

La emperatriz rebelde zineforuma
Osteguna 22 19:00

Arnaldo Otegi Mondragon EHBilduko koordinatzaile nagusiaren solasaldia. Altsasuko EHBilduk antolatuta.
19:00etan, Iortia kultur gunean.

ASTEARTEA 20

ALTSASU Zu non, han DA!
Asisko Urmenetaren *Amairu! Libera State!* liburuaren aurkezpena.
Durangoko Azokaren baitan.
18:00etan, Iortia kultur gunean.

ASTEAZKENA 21

ZIORDIA Sari banaketa.
Marrakzi eta ipuin lehiaketaren sari banaketa.
Arratsaldean, liburutegian.

OSTEGUNA 22

IRURTZUN Ipuin kontaketa.
Sergio de Andres ipuin kontalaria.
17:30ean, liburutegian.

ALTSASU AGAbonak.
Ikasle Abertzaleak-en Ikasle Jaialdia: Lukiek eta TOC taldeen kontzertua.
22:00 gaztetxearen irekiera.
00:00 kontzertuak.

OSTIRALA 23

OLATZAGUTIA Emanaldia.
Txen DJ-aren Blach&White Techno saioa.
23:30ean, Barandi tabernan.



ALTSASU Gabriela Barrio Tea en la azotea artistaren *La diosa Mari y sus criaturas* trapuzko panpinen erakusketa.
Urtarrilaren 8ra arte. Iortia kultur guneko erakusketa aretoan.



OLATZAGUTIA Jaiotzen erakusketa.
Urtarrilaren 8ra arte. Astelehenetik larunbatera 17:00etatik 20:00etara eta igandetan eta jaiegunetan 13:30etik 14:30era eta 17:30etik 20:30era. Egoitzan.

ZORION AGURRAK



Maren Azpiroz Andueza
Zorionak politte! Egun polita pasa ta jarraitu horren maitagarri izaten! Muxu asko familiaren partez



JAIOTZAK

- **Leize Garcia Gandarias**, abenduaren 3an Lakuntzan
- **Paule Etxeberria Tobar**, abenduaren 5ean Altsasun
- **Mohamed Morad**, abenduaren 7an Irurtzunen
- **Peru Lazkoz Rayo**, abenduaren 9an Altsasun

HERIOTZAK

- **Javier Izagirre Iturrioz**, abenduaren 1ean Altsasun
- **Fernando Urkijo Perez**, abenduaren 4an Etxarri Aranatzen
- **Viviano Senar Ezkerra**, abenduaren 5ean Lizarragan
- **Isidoro Perez Perez**, abenduaren 6an Irurtzunen
- **Francisca Alegria Flores**, abenduaren 6an Lakuntzan
- **Fortunato Etxeberria Botanz**, abenduaren 6an Etxarri Aranatzen
- **Maria Luisa Liberal Iglesias**, abenduaren 9an Altsasun
- **Pilar Garaialde Lakuntza**, abenduaren 10ean Uharte Arakilen
- **Maria Mariñelarena Navarro**, abenduaren 11n Etxarri Aranatzen
- **Maria Pilar Cartujo Oscoz**, abenduaren 12an Olaztin

INFORMAZIO HAU EPAITEGIETAN ETA UDALETAN JASOTZEN DA. AGERTU NAHI EZ DUENAK, HAN JAKINARAZI DEZALA.


Erviti aluminio PVC

Akaborro industrialdea 13 Irurtzun | 948 500 813 | info@aluminioserviti.es

LEIHOAK, ATEAK, BALKOI ETA TERRAZEN ITXITURAK

Erakusketa Irurtzunen

Etxe zaharren
berriztatze eta birgaitzea



ESKELA

Fernando Urkijo Perez

Anaia nagusi arduratsu bezala, beste anaia guztiak zaindu eta gero bera joan da Eskerrik asko, osaba, gu guztiok zaintzeagatik

Urkijo familia




ESKELA

Iza

Zure ausentziak min ematen du. Baina zure orritzapenak, irribarre eragiten digu.

Zure lagunak



ESKELA

Fortunato Etxeberria Botanz

Ez dugu inoiz ahaztuko zure alaitasun eta bizitzeko nahia eta guztiaren gainetik izan zaren senar, aita, aiton eta pertsona fina.

Familiak bere agurrean jasotako maitasuna eta gertutasuna eskertzen ditu.

Maite zaitugu.

Zure familia



ESKELA

Iza

Zure kinta
Altsasu

IRAGARKI SAILKATUAK

LANA/NEGOZIOAK

LAN ESKAINTZA

Irurtzunen Udal azpiegituren garbiketan aritzeko zazpi lanpostu betetzeko deialdia zabalik: Merezimendu lehiaketan parte hartu nahi dutenek abenduaren 20ra arte dute aukera udalean eskabideak aurkezteko. Informazio gehiago www.irurtzun.eus webgunean.

Altsasuk Udalak 32 lanpostu betetzeko deialdia egin du: 31 lanpostu merezimendu lehiaketa bidez beteko dira: B mailako aparejadore, C mailako administrari-ofiziala, kulturako ofizial teknikaria, ludotekaria, Obra Zerbitzuetako arduraduna, Obra Zerbitzurako igeltsu ofiziala, D mailako administrari laguntzailea, obra zerbitzuetarako 7 enplegatu, Gazteria Zerbitzurako hiru

begirale, etxezaina, E mailako zortzi lanpostu betetzeko daude. Euskara eskakizun maila ezberdinak lanpostuaren arabera. Oposizio lehiaketa bidez B mailako gazteriarren eta partaidetzaren teknikaria bete nahi da. Azken prozedura honetan parte hartzeko abenduaren 20ra arte dago epea izena emateko. Informazio gehiago www.altsasu.net eta <https://bon.navarra.es/iragarkia/-/texto/2022/243/0> eta <https://bon.navarra.es/iragarkia/-/texto/2022/243/1> webguneetan.

Sakanako Mankomunitateak 27 lanpostu egonkortuko ditu: Merezimendu lehiaketa bidez maila ezberdinak 25 lanpostu egonkortuko ditu (20 hondakin zerbitzuko langileak, planta arduraduna, arkitekto tekniko bat, gizarte hezitzailea eta ur ofizial lanpostu bat, administrari laguntzailea) euskarazko maila ezber-

dinak eskatzen dira lanpostuaren arabera. Hondakin zerbitzuan oposizio-lehiaketa bidez peoia eta txofer peoia lanpostuak bete nahi dira, euskarazko B1 maila eskatzen zaie. Deialdietan parte hartzeko interesa dutenek abenduaren 27ra arteko epea dute eskabideak Sakanako Mankomunitatean aurkezteko.

Irurtzungo Udala bi begiraleren bila: Merezimendu-lehiaketa bidez beteko ditu C mailako bi lanpostuak. Eskabideak aurkezteko epea abenduaren 27an amaizten da.

Urdiaingo Udalak hiru lanpostu bete nahi ditu: merezimendu-lehiaketa bidez bete nahi ditu zerbitzu anitzetako langilea, liburuzaina eta garbitzaile lanpostuak. Deialdian parte hartu nahi dutenek abenduaren 27ra arte dute epea eskabideak aurkezteko. Informazio gehiago <https://bon.navarra.es/iragarkia/-/texto/2022/247/60>.

Altsasuko Udalaren erakunde autonomoetan 41 lanpostu egonkortuko dira: Aita Barandiaran adinduen egoitzan 20 lanpostu, udal musika eta dantza eskolan 14 lanpostu eta kirol azpiegiturak kudeatzen dituen Atabo-Altsasu enpresan, zortzi. Informazio gehiago honako lotura hauetan <https://bon.navarra.es/iragarkia/-/texto/2022/243/2>, <https://bon.navarra.es/iragarkia/-/texto/2022/243/3> eta <https://bon.navarra.es/iragarkia/-/texto/2022/247/42> loturretan.

Oinarrizko Gizarte Zerbitzuen Mankomunitatean lau lanpostu betetzeko oposizio lehiaketak: Irurtzun aldeko Oinarrizko Gizarte Zerbitzuen Mankomunitateak hiru lanpostu betetzeko deialdia egin du. Batetik, gizarte langile lanpostua, lanaldi osokoa eta B mailakoa, euskarazko C1 ezagutza duena. Bestetik, familia langile lanpostua, lanaldi osokoa eta D mailakoa, euskarazko B2 ezagutza duena. Azkenik, bi gizarte hezitzaile lanpostu beteko ditu merezimendu lehiaketa bidez, B mailakoak, bata lanaldi osokoa eta bestea lanaldi erdikoa, eta euskarazko

beharko diote. Informazio gehiago <https://bon.navarra.es/iragarkia/-/texto/2022/247/40> eta <https://bon.navarra.es/iragarkia/-/texto/2022/247/41> eta <https://bon.navarra.es/iragarkia/-/texto/2022/247/42> loturretan.

Lakuntzako Udalak administrari ofizial lanpostu egonkortzeko deialdia egin du: Lakuntzako Udalak 2022rako lan publikoaren eskaintza egin du, aldi baterako enplegua egonkortzeko prozesuaren barruan. Lanaldi osoko lanpostu baten deialdia egin du udalak: Administrari ofizial lanpostua bete nahi du, C mailakoa, eta euskarazko C1 ezagutza duena. Lanpostu horretan interesa dutenek beraien eskabideak Lakuntzako udaletxean otsailaren 1etik aurrera aurkeztu beharko dute.

iragarki@guaixe.eus
www.iragarkilaburra.eus

HEMEN, ZURE ONDOAN
AGÜ, A TU LADO

«Bizitzan badira une batzuk zeinetan norbait ondoan behar dugun»

BEILATOKIAK

ALTSASU Santa Cruz, 6 ETXARRI ARANATZ Nagusia, 2

948 05 90 90 · www.izarratanatorio.com

IRACHE

tanatorioak

Tanatorioak: Altsasu – Irurtzun – Lekunberri – Betelu – Leitza

“Betidanik”

☎ 948 19 70 70
 📍 @Grupolrache
 📺 Grupolrache
 🌐 www.tanatoriosirache.es



Abenduaren 2an egin zuten 'VIII. Zama doinuz arindu' jaialdiaren aurkezpena. UTZITAKOA

Zortzigarrenez, zama arintzeko doinuak

Etxarri Aranazko Sarek eta herriko presoen senide eta lagunek antolatzen duten jaialdia urtarrilaren 15ean, igandea, izanen da, Etxarri Aranazko kultur etxean. Zortzi abeslari eta taldek parte hartuko dute. Sarrerak dagoeneko salgai daude

ETXARRI ARANATZ

Zortzigarren urtez *Zama doinuz arindu* musika kontzertu-ikus-kizuna egingen dute Etxarri Aranazko euskal presoei ezartzen zaien "salbuespenezko legedia" salatzeko eta egoera horrek sortutako urraketen "zama arintzeko" helburuarekin. Etxarri Aranazko Sarek eta herriko presoen senide eta lagunek antolatzen dute jaialdi arrakastatsua, urtez urte kontsolidatu dena. Jaialdia urtarrilaren 15ean, igandea, izanen da eta bi saio egonen dira, 17:00etan eta 19:30ean. Sarrerak dagoeneko salgai daude Etxarri Aranazko udaletxeko kultura bulegoan -asteleheneretik ostiralera 09:00etatik 13:00etara-, Etxa-

rri Aranazko Udaleko webgunean eta Xapatero eta Leku Ona tabernetan.

"Euskal presoei aplikatzen zaien salbuespenezko legedia salatu eta ematen diren hainbat eskubide urraketen zama arintzea da helburua", antolatzailen esanetan. Urteetan luzatu den gatazkaren konponbidean urratsak ematearen aldeko mezua zabaltzeko xedea duela gaineratu dute.

Zama doinuz arindu kontzertu-ikus-kizunaren bereizgarrietako bat da parte hartzen duten taldeek emanaldi akustiko edo intimoagoa ematen dutela, giro oso berezia sortuz. Zazpi edizioetan bezala, 2023ko edizioan ere Euskal Herriko abeslari eta mu-

sika talde ospetsuek parte hartuko dute jaialdian: Kalakan, Nogen, ETS taldeko Iñigo Etxezarreta, Olaia Inziarte, Kerobia, Ion Maia, Lorelei eta Tatxers.

Etxarri Aranazko oholtzatik estilo eta mota desberdinetako 50 musikari baino gehiago pasa dira "zama doinuz arintzeko" helburuarekin, besteak beste, Esne Beltza, Oreka TX, Tximeleta, Ruper Ordorika, Vendetta, Su ta Gar, Zopilotes, La Chula Potra, Gozategi, Doctor Deseo, Fermin Valencia, Hesian, Gorka Urbizu, Kutxi Romero, Petti, Gaitibu, Fermin Muguruza, Deskontrol, Akelarre, Huntza, Itziar Ituño, Porrotx, Juanxko Skalari, Zetak, Anita Parker, Zelanda...

Hatortxu Rock jaialdia ospatuko dute larunbatean, Atarrabian

Besteak beste, oholtzaren gainean jaialdian lehenengo aldiz parte hartuko duten bederatzi talde ariko dira

SAKANA

Hatortxu Rock duela 23 urte jaio zen bi helburu eta konpromiso batekin: "Euskal preso politikoei eta euren familiei pairatzen zuten dispertsioa salatzeko, eta dispertsioaren gastuei aurre

egiteko eta errepresaliatu politikoen gaia guztiz amaitzeko lanean jarraitzeko". Abenduaren 17an, larunbata, Atarrabian musika jaialdiaren 27. edizioa ospatuko dute. *Gertu* da aurten go udazkeneko jaialdiaren leloa:

"Azken urratsa emateko prest gaudelako. Gertu".

Guztira, hamazazpi talde ariko dira eta horietako bederatzi lehenengo aldiz ariko dira Hatortxu Rocken: La Furia, Bulego, Angelus Apatrida, Merina Gris, Segismundo Toxicómano, Odolkiak Ordainetan, Brigade Loco, Odei Barroso eta Raimundo el Canastero. Skakeitan taldeak azkeneko kontzertuetariko bat emanen du. Mafalda, Nogen, SA. Afu, Tremenda Jauria eta DJ Plan B taldeek ixten dute kartela.



BERTSOZALE ELKARTEA

Zortzi bertsolari eta txapel bat

Aitor Mendiluze, Alaia Martin, Amets Arzallus, Beñat Gaztelumendi, Joanes Illarregi, Maialen Lujanbio, Nerea Ibarzabal eta Sustrai Colina bertsolariak iritsi dira Bertsolari Txapelketa Nagusiko finalera. Igandean jokatu da, Nafarroa Arenan, eta epaileen artean sakandar bat egonen da: Joseba Beltza etxarriarra.



BAZTERRETIK

IRATI EIZAGIRRE SAGASTIBELTZA

Ez zaitzala kontsumismoak kontsumitu





'Mundua guztiontzako beharko luke, baina ez da' liburua, Biak bat elkartearen agertzen dena.

Denondako mundua eraikiz

Bizipoza elkarteak Euskal Herriko 30 elkarte baino gehiago batzen ditu, tartean Sakanako biak bat, eta orain 'Mundua guztiontzako beharko luke, baina ez da' liburua kaleratu du, besteak beste, elkarte horiek egiten duten lana azaleratzeko

Eneida C. M. eta E. R. B. SAKANA Bizipoza elkarteak Euskal Herriko 36 elkarte biltzen ditu, tartean Sakanako Biak bat elkarte. "Izaera bereziko gaiak lantzen dituzten haur eta familiariek osatutako elkarteak" direla azaldu du Leire Elizegi Beloki elkartearen koordinatzaileak. Helburu amankomun bat dute: "Asko, egia esan, baina bat nagusia dena; guztiontzako beharko lukeen herri inklusibo bat eraikitzea euskaratik eta euskaraz". Elkartuta eta "saretuta" bozgorailu izan daitekeela uste dute. Elkarrekin batera bazkideak, gizarte eragileak, norbanakoak eta babesleak ere daude.

Guztiantzako herri inklusibo bat helburuarekin aurrera egin, liburu bat kaleratu dute: *Mundua guztiontzako beharko luke, baina ez da*. Izenburu ira-

dokitzalea du: "Dena iradokitzen du izenburuak". Liburua Amagoia Mujika Telleriak idatzi du 2019. urtean Peio Manterola Pabandoaindarrak egindako master bukaerako lana oinarri hartuta. "Bizipoza elkartearekin lotutako lana egin zuen". Manterolaren helburu nagusia zen elkarteak existitzen direla oraindik eskubide batzuk ez direlako betetzen, "orduak, hortik hasi zuen bere lana eta helburu izan zuen elkarte hauek guztietan oraindik betetzeko dauden eskubideak eta beharrak identifikatu eta nola bete daitezkeen landu".

'MUNDUA GUZTIONTZAKO BEHARKO LUKE, BAINA EZ DA' KALERATU DUTE

"Oso txukun eraman zuen aurrera eta jardunaldi bat ere egin genuen egindako lanarekin". Manterolak egindako lana "oso mardula zen", izan ere, master amaierako lanean "teorizazioak eta gauza asko daude". Baina oso interesgarria zen, eta lan hori helarazi eta jendartera zabaltzeko behar zuten: "Amagoia Mujikarekin hitz egin genuen eta bera lan hori egiteko prest zegoen". Horrela sortu zen *Mundua guztiontzako beharko luke, baina ez da* liburua.

Liburua

Mujika eta Bizipoza elkartearen arteko harremana duela hamar urte baino gehiago hasi zen. "Bizipoza niregana etorri zen *Irria* aldizkarian elkarte bati buruzko ipuinak sortzeko eskatuz", azaldu du idazleak. Helburua elkarte bakoitzaren berri

ematea zen, "umeei kontatzeko elkarte bakoitzak zer egiten duen". Elkarte hauetako umeak jendartearen parte direla esan du, "eta oso inportantea ikusten dugu haurrentzako ipuin horiek egitea errealitate hauek ezagutzeko eta sozializatzeko, eta era berean beldurra kentzeko". Ipuin horiek sorkuntzaren bidez Bizipozako elkarte guztiak ezagutu ditu, "haiekin elkartzen naiz euskal jendarteari zer kontatu nahi dioten ezagutzeko, eta kontatzen didatenarekin mezu hori umeek ulertzeko moduan jartzen saiatzen naiz".

Manterolaren master amaierako lana oinarri hartuta, "ideia oso interesgarriak zeuden, baina asmatu behar genuen modu bat ideia horiek modu xume eta zuzen batean jendarteari helarazteko". Hortik ikusitako "arima eta gauza batzuk" atera dituzte eta liburua sortu dute. "Nire galbahetik eta nire begiradatik pasatu dira, baina lanaren txispa Manterolaren lan horretan dago".

Mundua guztiontzako beharko luke, baina ez da liburua badauka alderdi teoriko bat, idazleak azaldu duenez, gogoetarako gonbidapen bat dena. "Azkenean, liburuak ez ditu erantzunak ematen, galderak jartzen ditu mahai gainean. Pentsatzen dugu mundua guztiontzat izan beharko lukeela, eta seguruena denok baietz esango genukeela, baina mundua ez da guztiontzat. Egunerokotasunaren zurrumbiloi sartuta ez gara konturatzen etxe eta familia askotan bizi duten errealitateak". Elkarrekin egunerokoan beraien haurren eskubide sozialak beteak izan daitezen "sekulako lana" egiten dutela nabarmendu du Mujikak.

"Ideia da gu bagoazela lasai badagelako eusten gaituen sare bat. Gaixotzen garenean sendatzen gaituena edo behar bat dugunean asetzen duena. Baina sare hori ez da guztiontzako baliagarria, sare horrek zuloak ditu, eta zulo horietatik isurtzen dira ume askoren eskubideak". Bizipoza elkartearen elkarteak "gure portuetan" ikusten diren

saregileak dira, "eta eskuz josten dituzte zulo horiek". Hori da liburuaren ideia. "Zer zulo diren josten ari direnak azaldu eta zer egin beharko lukete orokorrean erakunde publikoek zulo horiek desagertzeko".

Liburuan zehar ere esaldiak agertzen dira, "eta horiek elkarrekin ahotsak dira". Oso garrantzitsua iruditzen zitzaizkien sartu dituzten esaldi horiek elkarrekin "oihuak" direlako: "Azkenean, jendarteari oihu bat da. Erakunde publikoek galdetzeko, egitan denak jendartearen bizitzeko eta ongizatea bermatzeko nahiko baliabideak ote dauden?".

Aurpegiak

Liburuan hitzak ez ezik argazkiak ere agertzen dira elkarrekin irudiak. "Askotan oso inportantea da hitzei aurpegia jartzea. Halako gaixotasuna edo beharra daukaten umeak aipatzen ditugu, baina aurpegia eta izena jartzen diezunean asko aldatzen da errealitate hori bizitzeko modua".

Amoia Irazusta Pausoka elkartearen ama bat da, Bizipoza elkartearen kidea dena. "Guretzat liburu oso-oso garrantzitsua da". Pausoka behar bereziak dituzten haurren elkarte bat da, eta haien bizipenak paperean "idatzita, islatuta eta ongi argudiatuta" ikustea oso garrantzitsua izan dela esan du Irazustak: "Gure errealitatea plazaratzeko, guk gure etxeko egunerokotasunean bizi duguna jendarteratzeko".

Bizipoza "elkarrekin egotea eta familia bat osatzea" suposatzen duela azaldu du Pausoka elkartearen kidea. "Gure elkartearen askotan esaten dugu, elkarte bat sortzen da arazo amankomun bat dugunon artean. Pausokako familiak babes hori sentitzen dugu eta elkarte txiki bezala Bizipozan elkarrekin sentitzen gara". Zalantzak eta beldurrak partekatuz "pila bat" ikasten dutela esan du.

"Egia esan oso pozik gelditu naiz emaitzarekin. Ez zen erronka batere erraza lan akademiko horren zorrotasuna modu erraz batean atera", azaldu du Mujikak. "Peiok abiatutako lan horretan elkarteak dira oinarri nagusia eta hori hartu eta Amagoiak egin zuen lan bikaina, iruditzen zaigu irakurterraza eta, aldi berean, oso mamitsua dela liburuak", Elizegik.

BESTEAK BESTE, BIZIPOZA OSATZEN DUTEN ELKARTEEN ERREALITATEA AZALTZEN DU LANAK

"Esperientzia hoberena eman nahi dugu"

Bi padel pistaz osatutako instalazioa ireki dute Arbizuko Utzubar industrialdeko 3 zenbakian: Sakana Padeleko Joseba Alzola kudeatzaileetako bat da, Jon Echaiderekin batera. Kalitate handiko pistak izatea izan da haien lehentasuna

Eneida C. M eta Erkuden R. B. ARBIZU

1 Jon eta Joseba. Iruñetik eta Zangozatik etorri zarete. Nortzuk zarete?

Jonekin hasiko naiz: futbolari profesionala da. Osasunan eta Huescan jokatu zuen, kirolzalea eta ekintzailea. Badauka arropa marka baten enpresa bat ere. Nire kasuan esango nuke kirol arloan korrikalaria naizela. Distantzia handiko korrikalaria naiz eta erronkak egitea gustatzen zait. Saharar herriari korrikaren bidez laguntzea gustatzen zait. GKE batean bazkidea naiz eta ahal dudan heinean laguntzen dut. Edozein kirol gustatzen zait ere, horregatik sartu gara proiektu honetan.

2 Zergatik Sakana Padel?

Kirolzaleak gara, eta zer edo zer ireki nahi genuen. Padelak Nafarroan zein estatuan oso arrakastatsua dela ikusi dugu, eta pentsatu genuen Sakanan jendea oso kirolzalea denez, oso ideia polita izango litzatekeela ibarrean irekitzea. Nik Sakanari maitasun handia diot gurasoekin joaten nintzelako, Nafarroa Oinezaren egon naiz, zenbait ekimenetan eta ibarra asko maite dut. Berezia da.



Joseba Alzola eta Jon Echaide, Padel Sakanako kudeatzaileak. UTZITAKOAK

3 Dagoeneko martxan dago?

Abenduaren 5etik martxan dago. Dagoeneko hasi gara. Ez dugu mustutze ekitaldirik egin lehenbailehen sakandarren esku utzi eta jokatzeko aukera izatea nahi genuelako. Gustatuko litzaziguke aurkezteko jardueraren bat egitea. Ez dakigu noiz izango den, agian Eguberrietako oporretan. Sare sozialetan iragarriko dugu. Oporretan, abenduaren 26tik 29ra ikastaro trinko bat eskainiko dugu. Eskaeraren araberago gehiago egingo ditugu.

4 Kirola ezagutzeko?

Padelean jokatzera Iruñera edo Beasainera joan dena bada, baina kirol honetan hasten zarenean garrantzitsua da alde teknikoa ikastea. Horregatik sortu dugu ikastaro hau. Lehenengo urratsa da; gure ideia da urtean zehar ikastaroak ematea.

5 Nola erabil daitezke?

Oso erraza da. Lau pauso dira. Hasteko, webgune bat dugu: domosport.com/sakanapadel/. Bertan erabiltzaileak alta eman behar du, izena eta pasahitz bat jarri, hori lehenengo urratsa da. Epostaz baieztapen mezu bat jasoko du eta hori baieztatu behar da. Hori egin eta gero webgunean berriz logeatu behar da, eta laugarren urratsa, pista erreserbatzea da. Modu erraz batean esperientziaz gozatzea nahi genuen.

6 Langilerik ba al dago?

Guk nahi dugu esperientzia onena ematea eta pista ezin hobek izatea lehenetsi dugu. Jarri ditugun bi pistak kalitate hobereatarikoak dira, inbertsio indartsua egin dugu. Pentsatu genuen ideia hoberena zela do-

motizatzea eta bezeroari 24 orduko zerbitzua ematea eta nahi duenean joatea eta erabiltzea.

7 Nolako da tokia?

Bi pista daude eta gero komunak daude. Aldagelarik ez dago oraindik. Orain egongela bat jartzeko ideia lantzen ari gara; lekutxo bat sofa eta mahai altu batzuekin jarri nahi dugu, kafe makina eta vending makina batekin. Egongela giroa duen txoko bat jarri nahi dugu.

8 Beste proiekturen edo inbertsioren bat martxan duzue?

Hirugarren pista bat irekitzea dugu buruan. Eskaerak nola erantzuten duen ikusi behar dugu. Beste ekintza bat ere sartzea pentsatu dugu. Momentuz egin dezakedan aurrerapen bakarra da bailaran berria dela. Eskaeraren arabera, beraz, hirugarren pista bat eta beste proiektu bat dugu buruan.

9 Indartsu eta gogotsu zatozte.

Bai, nik uste lekuetara gogokin joan behar garela, apustua egin behar dugula eta ilusioarekin egin behar ditugula proiektuak. Pozik gaude bailarara iristeagatik, eta gogo handiekin.

10 Pistetan jokatzeko denborarik ba al duzue?

Bada, zintzotasunez, partida bat jokatu dugu eta hobetzeko margen handia badugu. Eta horretarako etorri gara.

11 Nola kontaktatu daiteke zuekin?

Instagramen [@sakanapadel](https://www.instagram.com/sakanapadel) izenarekin aurkituko gaituzte. Bertan informazio eguneratua jartzen dugu.

HASI ZURE
EGUTEGIA
 prestatzen



gik

DISEINUA ETA
 KOMUNIKAZIOA



619 821 436 | Foru plaza, 23-1. Altsasu
info@gkomunikazioa.eus | www.gkomunikazioa.eus

NEURRI ETA EUSKARRI DESBERDINAK
ESKATU AGIRIKONTUUA KONPROMISOARIK GABE